1973 — MARTXOAK, 18 XXXIII - garren urtea 524 - Zenbakia

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426866 - PREZIOA 7 PEZETA

ARCHIVO

NON ZER

- GALESTARRAK AURRERUNTZ
  Larresoro ... ... 3 garrenean
- EGUN EGUNEKOA
  Ibargoiti ... ... 3 garrenean
- GURE HERRIGINTZA ARLOTEA ETA EKONOMISMOA
  Ansola ... ... 5 garrenean
- ZAHARRA ETA BERRIA
  Azurmendi ... ... 6 garrenean
- UME ZURTZ DAGO ARRANTZALEA
  Urkidi ... ... 10 garrenean
- ELIZA SALBAZIO BIDE (II)
  Arregi ... ... 11 garrenean

AITA GOENA, SIKIATRA

Edozer gauza esateko euskerak duen gaitasuna ikusi dut

Beste profesiodunentzat pizgarri izan nahi du iztegi honek

Aita Goena jesulaguna dugu. Sendagile-sikiatra. Lan horri lotu zaio orain dala amaika-amabi urtez gero. Bere sendagiletza batez ere euskaldunen artean erabili du. Jakina da sikiatrarengana doan eri batek konfiantza osoz itzegin behar diola. Medikuari bere sentimenak ahal denik eta garbienik azaldu behar dizkio, sendabidean jarri nahi badu. Hortaz jabeturik, Aita Goenak berehalaxe ekin zion lanari. Bere konsultako joan etorriari begiratu besterik ez dago, euskaldun jende asko dabilela ikusteko.

Aita Goenaren joera hortatik beste ondorio bat ere bazetorren: Sikologi inguruko gaietaz itzaldiak leku askotatik eskatu izan zaizkio, batez ere errietatik. Euskeraz, noski. Eta lan horretan ere jardun du Karlos Goena sendagileak.

Baina gaur, orrialde hauetara dakargun elkarrizketa hau egitera, beste zerbaitek bultzatu gaitu. Izan ere, Aita Goenak «GIZA-BIZIA» izeneko iztegia argitara berri du. Gaztel-euskaldun anatomi iztegia. Liburu ederra eta garrantzi berezikoa. Ikus ditzagun egilearen asmo eta iritziak.

——oOo——

—Nola sortu zan iztegi hau?

—Azkeneko urteotan erriz erri ibili behar izan dut itzaldiak ematen. Guraso askoren edo gazteen jakin minari erantzunaz. Jakina, euskeraz eman behar izaten nituen itzaldi horiek eta lanbide horretan sortu zitzaidan kezka. Egia esan, gaiak azaltzean, aldi bakoitzean sumatzen nuen iztegi baten falta, euskal iztegiaren falta, nik nerabilzkien gaiak garbi azaltzeko. Ez neukan patxada osoan, lasai, gustora itzegiterik. Beti erderara jo behar eta ezinean ibili behar. Benetako oztopoa aurkitu nuen itz falta horretan.

Bestalde, inbiria ere ematen zidan, gaztelaniaz edozer itz nola erabiltzen duten eta euskera maila horretara ez zela iritxi orain-dik ikusteak. Landuz gero, euskera bera ere horretarako gai izango ote zen ere jakin nahiak asko bultzatu zidan nere lanari ekiteko.

—Zer ikusi eta ikasi duzu zure lan honekin?

—Egia esan, asieran euskera ez zela gai uste nuen. Baina arian arian ikusi dugu erriak guk uste baino askoz ere itz gehiago esan dituela, gauza asko adierazi dituela bere izkuntzan, alegia.

Beste gauza pozgarria hau izan da: Edozer gauza azaltzeko euskerak duen gaitasuna ikustea.

—Nola egin duzu lana?

—Joera bezala, beti lehenbizi euskera berari galdetzea izan dugu. Euskera beronen erantzuna jaso arte beste erantzunik ez emáten saiatu gara. Euskeraz biderik bazan, hortik jo dugu aurrera, lehen unetik erraztasunera jo gabe. Gero ikusi dugu horrela jokatuz itzak askoz ere egokiagoak irten direla. Eta batzuren batzu zailak geratu badira, bi eratara utzi ditugu, zailagoa eta errazagoa.

—Zenbat itz bildu dituzu?

—Bi multzo berezi behar dira iztegian. Bata, "Nómina Anatómica Internacional" deritzanaren euskeratzea, hau da, anatomi-iztegi osoa. Horrek lau bat mila itz izango ditu. Baina gainera, beste zati batean, histologi-fisiologi-psicologi aldeko beste biren bat mila itz daude.

Eraskinean berriz, nahiz eta ez egon itz asko, bidea azaltzen dut beste itz batzuk sortzeko. Hori onartuz gero, beste lau edo bost mila itz berri erabiltzeko gauza ginake.

—Zenbat denborako lana izan duzu hau?

—Ia iru urtetako lana.

—Zure iztegian argi dakusagu nola jokatu duzun atzizkiez. Bainan zer oztopo eta zailtasun aurkitu dituzu prefijo edo aurrizkiez?

—Iztegia bera halakoa delako edo, ez dugu aurkitu hor gehiegizko prolemarik.

—Zure lan horretan izan al du parterik Euskaltzaindiak, baiezteko edo babesteko bederen?

—Bi euskaltzain ari izan dira lanean nerekin: Anbrosio Zatarain eta Josu Oregi jaunak. Baina erakunde bezala, Euskaltzaindiak berak ez du parterik izan.

Jakin, jakin dute nola ari ginen. Orain, nik Euskaltzaindiari nere lana eskeintzeko asmoa dut, azter dezan eta bere babesa edo aholkua eman dezan. Benetan bere eskuetan uzteko asmoa dut nere lana.

—Zure iztegi hau goi-mailan sortua da. Goiko maila horretan jaiotako itzak egokiak izango ote dira izkuntza arruntarako ere?

—Mitxelena jaunak esan berria duen bezala pentsatzen dut nik ere gai honetan: Alegia, iztegi guztiak egin behar lirakeela goitik behera, ez alderantziz askotan gertatzen dan bezala. Behetik asiz gero, ez baitakizu goragoko mailetarako gai izango ote diren itz haiek. Irizpide egokia iruditzen zait neri orain, nere lana egin eta gero, Mitxelenak adierazitako hori.

Nere iztegi honetan badaude oso teknikoak diren itzak, bai eta arruntak ere. Goi-mailako zabaltasunean jaiotako itzak egokiagoak izaten dira izkera arrunt batean erabiltzeko ere, askoz ere aberatsagoak. Behetik asita, itsu-itsuan jokatzeko arriskua dago.

—Euskal Errian lanean ari diren sendagileak, izkuntza arazo honetaz kezkaturik ote daude?

—Banaka batzuk, bai. Euskaltzaindian ere badago medikurik. Baina oro-ar, ez dut ikusten horrelako kezkarik. Profesio mintzaira hau euskeraz erabiltzeko, asko falta zaigu. Horregatik nere lan hau pizgarri izan ditekeela uste dut, bai sendagileen artean eta bai beste profesidunen artean ere. Euskerak merezi du, gai da, eta eman behar zaio konfiantza hau.

—Iztegi hau profesio-mailan dihardunentzat egina duzu batipat. Baina ez al litzake erraza zure lan hortaz baliatuz, ikastola-mailako iztegitxoren bat, marrazki eta guzti, egitea?

—Liburuan bertan hori eginik dago. Ain zuzen, bigarren zatia, irudiz jantzirikoa, ikastolari begiratuaz egin dut. Batez ere "bachiller" mailan pentsatuaz. Agian, bigarren zati horrekin liburuxka bereziak osatzea litzake egoki.

—Zer garrantzi ematen diozu marrazkilariaren lanari?

—Garrantzi ikaragarria. Oso onak dira, garbiak, argiak; Garridok egin dituen marrazkiak; eta pedagogi aldetik beharrezkoak. Zientzia-aldetik begiratuz ere oso egokiak dira. Marrazki hoiekin, umeek eta gaztetxoek, jolasean bezala ikasi ditzakete gauza asko eta itzak erraz-erraz bereganatu. Horrela ez zaigu gertatuko, erri txiki batzutan ikusi dudan bezala, "birika" esan beharrean jendeak "pulmoia" esatea, ezjakintasunez. Zer mina ematen zidan!

——oOo——

Zer gehiago erantsi behar ote zaie Aita Goenaren esanei? Gauza bat azpimarkatuko dugu: Beste profesio askotako jakintsu euskaldunak ere saia ditezela horrela jokatzen. Euskerak mundura irten behar badu —eta garaia heldu zaio— ezin utz dezakegu lan hau gerorako.

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

BASERRITARRA!!

CAN

Donosti-Aurrezki-Kutxa'ri

esker, urririk, musutruk egin dezakezu

zaragoza'ko teknika-peria joan-etorria



7'garren LATERRI-ARTEKO LURGIN-TRESNA-GINTZ'EN, TEKNIKA-PERIA

Zaragoza'n, 1973 ngº jorraillа'ren 6' tik 15'a bitarte

Nere Bordatxotik

Bein da berriro, Anatsan, iketarako bidea ematen diguzu.

Azken igande ortan ez genduen euskal jokorik, eta mesede ederra egin diguru. Gai ederra eskeiñi.

Eskerrikasko, biotzez.

Gizatasun eta jatortasunik eztegu galdu bear, Anatsan. Azkena litzake ori.

"Eztabaidak eztira beti kaltegarri izan oi", zuk egoki diozun bezela. Gizatasunez eramandako eztabaidak, kaltegarri ez, baiña mesedegarri dirala esango genduke.

—oOo—

Nork bere arrazoibideak agertzeko eztauka beste iñor zertan mindu.

Beti uste ontakoak izan gera.

Biderik zuzenena dala derizkion artan jarraitu norberak, baiña beste bide bat artu dutenengatik gaizki-esaka ez ari eten gabe.

Gure jokoak garbi ta legezkoak izatea nai degu, ori bai.

Ez gera lokaztegian ibilizale: garbi ta legez, edo baterez!

Gizaldiz-gizaldi guganaiño iritxi dana osorik errespetatu, edo pardelk eginda beste norabaitera danok.

—oOo—

Joko narratsak asko izan dirala?

Jokoa galdu nai, ta galdu eziñik ibiliak badirala?

Gertaera auek jende asko atzeratu dutela plazetatik?

Eztizugu ezetzik esango.

Baiña... zertarako dago Federazioa orrelakorik barrundatu ezkero zigortu ta kastigatu ezean?

Ta... ez al ditu bat baiño geiago zigortu Federazioak?

Pekatarien izenak ez al dituzu iñoiz moldezko letretan periodikoetan ikusi?

Ez al dakizu, gaur bertan ere, plazaratzerik eztaukaten plaza-gizonak badirala?

—oOo—

Orrelakoekin, zuk diozunez, gu ez omen gera oso zorrotzak; axaleko agerpen bat eman, eta danekin ondo gelditzeko modua egiten omen degu.

Bejondizula! Au ere entzun bear genduen!

Guztia bazeneki, etziñake ain arin mintzatuko, baiña, tira! ezjakiñean ari danari barkatzen dakigu guk.

Ogeitazazpi urte luze dira euskal deporteari buruz idazten asi giñala.

Tarte luze ortan, Anatsan, izan da amaika gorabera.

Zuriari zuria ta beltzari beltza deitu geniolako, illabete luzeetan eta urte batzutan aurpegira begiratzen etziguten joko-gizonak izan ditugu, zuk ezpadakizu ere.

Erabat mindu, zazpuztu ta asarretu, guk periodikoan idatzitakoarekin.

Gerora (au eskertzekoa da), buru makurrez barkazio eske etorriak ere bat gaiño geiago ditugu.

Aurretik esan dizugun bezela, etzaigu gustatzen iñori miñik ematerik, baiña ezta gaizki portatu danari ondo portatu dala moldezko letretan esaterik ere.

Gauzak esatetik esatera alde ikaragarria dago. Zenbaitek bezin zakar, gordin eta pozointsu idatziko bagendu, aspaldi galduak giñan.

Alakoak eztute ogeitazazpi urtean periodiku batean irauten; lenago izaten dituzte okerrak, eziñak eta nasketak.

Bakoitzak geure egitekoak ditugu.

Azpijanik, konponketarik, edo legez kontrako jokabiderik ikusten duenean, Federazioa da zigorra eman bear duena, ta ez gu.

Guk ikusi degunaren berri eman bear degu; lana ondo egin badute ondo egin dutela esanaz, eta gaizki egin badute gaizki egin dutela adieraziaz.

—oOo—

"Leonkastilloa" irabazi ta lenengo tanda egitera azaltzen diranak "tongo" egitera dijoazela uste badezu, oso oker zaudela esango dizugu, Anatsan.

Arrijasotzaille batzuk ba-dira aurretik jokatuta ondotxoz geiago diranak. Joko —gizon danak eztira berdin estu-lasaian; batzuk plaza-gizon osoak, besteak kikara bat uretan itotzen diranak; plazan etxeko erdirik egin ezin dutenak.

Alakoak obe du egitekoak lenbailen egitea, gerorako ezer utzi gabe.

"ontrarioak onenbeste jaso dizkik lenengo tandan", alakoari esatea, pekatu mortala da.

Beraz, ontan, aitor zazu etzabiltzala zuzen, dexkuidoak danok izaten ditugu-ta.

—oOo—

Ta... izkuntzari buruz orrialde dana gutxiegi genduke.

"Harridura" ta "Boterea" itzak guretzat oso ezagunak dira, Anatsan.

Lapurdieraz asko irakurriak gaituzu, ta urte bi ta erdian alde artan bizituak. Axular'en "Gero", guretzat (au eztiogu arrokeriz), Agirre'ren "Garoa" bezin erreza da.

Idazle batek, ordea, irakurleak bear ditu gogoan, eta ez norbere burua.

osteun milla euskaldunek aotik aora darabizkiten itzak baztertzen ari gera, eta dozenerdi batek darabizkitenak plazara ateratzen.

Au konparazio bat bezelatsu da, baiña egi gordiña.

"Harridura" ta "botere" itzak arrotz eta ez-ezagun dira millaka gipuzkoar eta bizkaitarrentzat.

"Harriduraren" ordez "Arrimena" idatzi, ta "Boterearen" ordez "Almena", ta au dala uste degu buruz jokatzea.

Orain modan dagoen idazkera onekin, Zubearoan eta Lago egingo, ta Gipuzkoan eta purdin eztegu irakurle bat geia-Bizkaian zientokak edo millakak galduko ditugu.

Ez al zera konturatzen etxeko teillatura arrika ari gerala?

Noiztikako legea da "maiori" ikaragarri bat "minori" aul batengana makurtzea?

—oOo—

Au zoramena!, entzungo dezu nunai, gure artean. Au edermena!

Au galmena!, ta beste ainbat onelako. Berdin da "arrimena".

Itz auek ulertuko (entendituko) eztituen euskaldunik eztezu aurkituko.

Au onela izanik, zergatik agertzen dizkiguzu Zuberoako eleiztarrek irakurtzen dituzten zatiak?

Ango bostenak al dira emengo millakanaren gaiñetik bear dutenak?

Denbora alperrik galtzen ari gera, ta euskerari kalte ikaragarria egiten.

Aspaldi esan zuen Lafitte jaunak, bear zan lekuan, ango sua itzali zala ta eztagola zer egiñik.

Alde ontan sortu bear duela, alegia, izkuntzaren berpizkundeak.

—oOo—

Etzendukan Azpeiti'ko ta beste lekuetako txokokeri edo "lokalismoak" aitatu bearrik. Ez guk eta ez beste iñork eztu idazten itzegin bezela. "Escribo como hablo", esan zuen beingo batez Valdes erdel idazleak. Al zuenik urreen ibiliko zan erri-izekeratik, baiña eztiogu sinisten itzegiten zuen bezela idazten zuenik.

Ta.... galdera bat, Anatsan: egindako lanak ez al du ezer

Joan dan irurogei urtean balio?

Zerbait euskeraz irakurtzera zaletutako danak ulertuko dituzte Azpeiti'n "arau", bederen, "lendandik" eta gaiñontzekoak.

Frontoi batetan izan naiz, "naiago dezula" frontoi batean izan naiz" baiño?

11garren orrialdean jarraitzen du

(c) Ministerio de Cultura 2005

Gizona arriskuan

Horixe izan zitekeen Donostiako Gotzai biek kristauei garizumarako egin dien deiaren oihua: GIZONA ARRISKUAN.

Ni, ni izan ala ez izan. Gizona gizon izan ala ez izan jokatzen ari gara. Urak gatza bezala edo eguzkiak elurra bezala urtzen dute eta jaten gizona gizarteko aldrebeskeria eta kontraizateak.

Gizon izateko ditugun zailtasun hauek ezagutuz eta aitortuz jo behar dugu gizongintzan. Ugari dira bai gure barruan, bai gizartean eta bai elizan gizona desegiten duten aldrebeskeria eta kontraizateak. Gero eta ixtura txikiagotan biltzen ari da gizona. Zuhaitzaren gerriari loturik dagoen abereari gertatzen zaiona gertatzen ari zaio gizonari. Aberça ere, askatu eta ihes egin nahirik, zuhaitzaren jira-biran bere burua gero eta soka motzagoan lotzen jardun ohi da.

Badu gizonagan zerikusia, eta ikaragarria gainera, gizarteko ekonomia eta kultura eraketak. Gizona gizonago izan dadin laguntza edo gizona "gixon" eta "gixaxo" bihur dadin traba gertatu ohi da.

Asko mintzo ohi gara gizonaz, gizonaren aunditasunaz, askatasunaz eta nortasunaz baina agian ez diogu gizon horri gizon izaten uzten; aundi, aske eta nor izaten uzten. Ez diogu ez zer den, ez zergatik eta ez zertarako den bere buruari galdetzen, pentsatzen eta erabakitzen uzten.

Gizon izateko ez da aski ondo bizitzea, behar beharrezko premiak estaliak edukitzea. Gizonak bere bizitzaren elburuak aurkitu behar ditu. Inguruko giroak sortzen dizkigun premiei ezin erantzunik, itorik gabiltza.

Gure artean, besteak beste, erabat desgizontzen gaituzten bi arazo dira aztertu beharrezkoak.

"Bai estaduaren eta bai bestelakoen eziera-erakundeak aztertu beharrean daude ematen den kulturak gure erriaren nortasun eta kultura balioak txerta ditzan izkuntzarenak batipat".

"Gizartea elkarren aurka dauden taldetan zatitzen duen ekonomia eraketarik ez dezakegu onar. Ez eta gizonok elkartzeko dugun eta talde desberdinak ekintzarako eta bidezko eskeetarako duten eskubidea lorrean jartzea ere giza-eskubideen galeran".

"Inolaz ere ez dator ondo gizonari zor zaion maitasunarekin, gizona tresna bezala erabiltzea, ekonomiazko, sozial edo politikazko elburuak lortzearren. Gizonari gogorkeriaz eraso gabe aurreratu behar luke gizarteak zuzentasun eta askatasun bidean. Gizarteak, jendearteko edo kaleko ordena zuzena, gizonaren aunditasuna eta osotasuna arriskuan jartzen dituen gogorkeriazko erasoen bidez ez, baizik beste bide batzuen bidez gordetzeko eskubidea behar du".

Gizon izateko besteaz kezkatu behar da. Bestearen eta gizartearen arazoak ezagutu behar dira. Bestearen premiak bizi ez dituena ez da gizon osoa. Baina inguruan zer gertatzen den jakiteko ere elkarrekiko arremanak eta tratabideak eta askatasun giroa behar dira. "Ez da aski alderdi bateko iritzia bakarrik entzutea gizarteak berak lege-bidez bere ondasunak gorde nahi dituenean".

Noizbehinka berritzen eta konpontzen ez den etxea lurrera jausi ohi da. Garizuma dugu kristauok gizona berritzeko garai egokia. Gizona gizonagotu, "gizona osatu" da aurtengo gotzai deia.

Hortarako ez du azpian pasa behar ibilian dabilan gizadiaren eta kondairaren aurrerapen-gurpilak. Mundua eta izadia menderatu behar ditu gizonak. Kondairaren egile, jaun eta jabe izan behar du. Ez gara zerbait, norbait baizik. Horregatik desegin behar ditugu gizarteko aldrebeskeria eta kontraizateak eta gizonaren inguru osoa gizonarekin adiskidetu eta pakeatu.

Kristauok Jesus dugu lan hortan ilik ere berpiztu dena eta gaur JAUN gertatzen dena. Kristo dugu gizongintzan ispilu, xuxpergarri eta euskarri.

Gizona gizon izan dadin, garizuma gure gizartearen berritze eta aldatze bat gerta dakigula. Gure inguruan zer gertatzen den jakiteko egokiera bat izan dadila. Gizon osoari begiratzen dion aldi. Gizona salbatuago eta askatuago egingo duen garai.

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUIÑEA
D. L.: NA. 80-1963

egun egunekoa

IHAUTE

Ihaute egunetan ikusita: haur batzuk kalean euskaldun baserritar jantzirik.

Haserre bizitan egon arren, pentsatu dut eguneroko gauza dela hori gure artean. Hain zuzen ere, aspaldi ari gara euskaldunok geure buruari harrika, eta nor harrituko da baserritarren jantzia ihaute-jantzitzat jotzen badugu?

Hauxe, ordea, kontsolagarri: ume horiek horrela jazten dituztenek ez dakitela egiten dute. Egia dateke inorantzia dela gaitz ororen iturria, Sokrates-ek zioenez. Eta konklusinoa beste hau dateke: gure egin-beharra ikasi eta irakatsi.

Daniel Ibargoiti

GALESTARRAK AURRERUNTZ

Gales-ek eta Euskal Herriak badute elkarren eitea zenbait aldetatik. Bestetan esana dudanez, galestarrak bi miloi t'erdi lagun dira; eta hauetatik 600.000 bat mintzo dira galeseraz. (Euskal Herriari buruz bezala, «mintzo dira» horretan «mintza daitezke» irakurtzea hobe). Gehienek galdu dute «cymru» hizkuntza, hortaz; eta mea eta industri-eskualdeetan bereziki. Caerdydd-en inguruetan, esate baterako (Londresek «Cardiff» bataiatua), herria txit arroztuta dago eta ia soilki inglesez mintzo da.

Zertan dira, beraz, galestarrak? Argigarri izan dakiguke.

Artikulu mamitsu bat irakurri dut egun hauetan «Planet» aldizkarian («The Rise of the Bilingual Secondary School», Dan L. James, Planet 16, II-III-1973); eta laburtzapen bat egitea interesgarri izan daitekeala pentsatu.

ESKOLA-AURREKO IKASGUAK

Gaur egun 160 Lilitegi daude Gales-en (alegia, erdaraz «maternal», «maternelle» edo «kindergarten» esan ohi den horietakoak). Horietan eskolara baino lehenago ikasten dute galesez haur ttikiek.

LEHEN IRAKAS-MAILAKO ESKOLAK

Dan James-ek ez du problema hau bereziki aztertzen, bigarren irakas-mailako Lizeoena baizik. Baina lumero eta aztarna gogoangarri batzu ematen ditu.

Oraindik galesa mintzatzen den eskualdeetan —dio— «zenbait ehunka» eskola dago; eta galesa galdua den eskualdeetan, berriz, «berrogei-ta-hamar bat».

Lehenengo galestar eskola 1939-an zabaldu zen, eta zazpi ikasle zituen zabaltzean... Gaur milaka kondatu behar dira.

Galesez mintzatzen ez dakiten gurasoek, askotan nahi izaten dute beren haurrek galesez ikastea: Barry-ko St. Fransis-eskolan, gonbarazio baterako, ikasleen gurasoak «erdaldunak» direla esan genezake (inglesez mintzo direla, alegia) % 90 kasotan! Bada nahi zindoa galestarrengan.

BIGARREN IKAS-MAILAKO LIZEOEN SORRERA

Lehen mailako eskolak ugaldu eta gotortu ala, bigarren pausu bat egiteko beharra nabaritu zuten galestarrek; eta lizeoen maila antolatzen hasi ziren.

Oraingoz, dena dela, lizeoak oro bimintzodunak dira (galesez + inglesez ari); eta gales soilaz ari den lizeorik, hortaz, ez dago batere.

Lehendabiziko galestar lizeoa orain dela 17 urte zabaldu zen Rhyl-en; eta geroztik hori bera azkartu, eta beste batzu zabaldu dira. (Aurten sortuko dena eta hurrengo biak ere eman ditugu geure ilaran).

Noiz sortua	Nun
1956	Rhyl
1961	Mold
1962	Pontypridd
1963	Wrexham
1969	—
1973 (IX)	Aberystwyth
?	Llanharry
?	Aberdare

«Ysgol»aren izena	Haserako ikasle-kopurua
Glan Clwyd	93
Maes Garmon	109
Rhydfelen	80
Morgan Llwyd	36
Ystalfera	324
—	—
—	—
—	—

LIZEOEN ABIADURA

Nola doaz lizeo horiek? D. L. James-ek azaltzen digunez, denak doaz ongi eta goruntz. Hona hemen ikasle-kopuruaren gorabeherak:

Lizeoa	Zabaltzean	Gaur	Urte-gehiketa
			%
Glan Clwyd	93 ikasle	650 ikasle	+ 13
Maes Garmon	109 »	480 »	+ 14
Rhydfelen	90 »	750 »	+ 25
Morgan Llwyd	36 »	250 »	+ 21,5
Ystalfera	324 »	716 »	+ 30,5

Azkeneko hiru lizeoak, hortaz, askoz azkarrago ari dira hazten lehenengo biak baino. Galestar pizkundea indartuaz doa irakaskintzaren bigarren mailan.

LAGUNTZA OFIZIALIK EZ

Londresko gobernuak ez du ezertan laguntzen; eta galestarrek berek egin behar dute dena: dirua, irakasleen prestaera, eta abar. Hona hemen, hitzez hitz itzulirik, artikuluak diona:

«Gurasoen, adiskideen eta irakasleen ahaleginari esker sortu dira galestar eskolak. Gaur egun galesez irakasten duten maisu batzuek gutxiago irabazten dute beste eskolatan irakatsiko balute baino. Guraso batzuek, era berean, beren haurrak bimintzotasun horretan eskolatu nahirik, beren lanbide-aurrerapenei uko egin behar izaten diete. Eta, azkenik, misiolari suharren parekoak diren irakasleok ez bestek eraman dezakete aurrera irakaskintza-mota hori; zeren-eta, denaz gain, eskola-liburuak eta irakaskintza-tresneria bera ere berok, beren buruz eta kabuz, moldatu behar baitituzte».

GURASOEN HIZKUNTZAREN ARAZOA

Herri handietan —edo koskorretan bederen— zabaltzen dira bigarren mailako lizeook; ez baserrietan. Hots, galesa baserritarrek atxiki dute gaur arte, ez kaletarrek.

Lizeoetako ikasle askoren gurasoek, horrela, kaleko seme izanik, ez dakite kimrieraz; eta haurrek, beraz, bi mintzaira aurkitzen dituzte beren bizian: inglesa etxen, eta inglesa + kimriera lizeoan.

Hona hemen ikasle-kopuru gogoangarri batzu:

Lizeoa	Bi gurasoak ingles-dun (A)	Guraso bat ingles-dun (B)	Familian inglesez ari (A + B)
Rhydfelen	260 (% 35)	225 (% 30)	% 65
Glan Clwyd	110 (% 17)	168 (% 29)	% 46
Morgan Lywyd	34 (% 13)	66 (% 26)	% 39

Hori dela-ta, «hauxe da irakasleak galesez mintzo ez diren gurasoei etengabe egin behar dien erregua: haurrei ahalik eta gehienik galesezko telebista-saioak ikustera uzteko, galesezko liburuak erosteko, eta bakantzak pasatzera kimrieraz hitzegiten den eskualde batetara bidaltzeko». Eta hau erantsi du James-ek berak: «erantzuna bihotz-altxagarria izan da».

ZER IRAKASTEN DEN INGLESEZ ETA ZER KIMRIERAZ

Hona hemen ikaskaien banaketa:

Inglesez
Ingles hizkuntza bera
Matematika
Biologia
Zientziak

Kimrieraz
Kimriera bera
Kondaira
Geografia
Erlijioa
Musika
Hizkuntza arrotzak
Jinasia
Esku-lanak

Zenbait kasotan, halere, Zientzi-gai batzu kimrieraz azaltzen hasiak dira.

ESKOLA-LIBURUAK

Oso gaizki daude: ez dago ia ezer.

Askotan, libururik ezaz, gai bat maisuak ikasleei inglesez irakurri, eta gero elkarrizketa eta argitzapenak galesez egiten dira. Beste askotan irakasleak berak prestatzen ditu, bere buruz, irakas-orri apalak, eta hauetxen bidez irakasten.

Gaur bi pertsona daude liburugintza horretarako «liberaturik» (bost urtetarako hautaturik, eta Aberystwyth-eko Unibertsidadearekin batera lanean ariko).

UNIBERTSIDADEAN

Esan beharrik ez: ez dago ia ezer.

Halere Aberystwyth-eko Unibertsidadean ikasleak eskatuz gero, bederatzi irakasle daude kimrieraz irakaskintza emateko gertu. Hona hemen ikas-sail horiek: Giza-hezkezta, Gales-en Kondaira, Kondaira, Frantsesa, Kimriera bera, Filosefia, Zelta-ikerketak eta Geografia.

Bangor-ko Unibertsidadean ere badira erraztasun batzu zenbait sail (Antzerki, Bibli-ikerketak, Musika eta Soziologia) kimrieraz ikasteko.

—oOo—

Gu baino aurrerago ote galestarrak? Irakurleak berak erabaki beza.

LARRESORO

(c) Ministerio de Cultura 2005

BERRIAK Aurrez esana dugunez, Martxoaren 29 eta 21an. Bilbaoko Coliseo Albia delakoan Jose Mari Usandizaga donostiarraren "Mendi-mendiyan" deritzan opera aurkeztuko da.

Honako obra hau 1910 urtean aurkeztu zen lehen aldiz Bilbaon, eta geroztik, osorik ez bazen ere, zenbait pasarte behintzat 1946 urtean azaldu zen berriro.

Orain, aldiz, opera osoa aurkeztu nahi da, Usandizagak berak burutu bezala, Bilbaoko oru Elkarteak, Olaeta Ballet Taldeak eta Orkesta Sinfonika delakoak elkarrekin parte hartuko dutelarik.

● Hilaren 31an. Parisko "Eskual Etxea" deritzan elkartean, Zuberoako folkloreari buruzko saio bat eratuko da. Saio honetan lehen eta oraingo kantak azalduko dira doinu zaharrez nahiz berriez bai eta Zuberoako zenbait dantza ere.

Zuberotarrek eskainitako lehen folklore saio honek ez luke nahi bakarra izan, aitzitik, "Eskual Etxe"ko zuzendaritzak mintzaldi eta erakusketa hauk jarraitu asmoz ari dira, Zuberoako folkloreaz ezizik, gainontzeko eskualdeetakoez ere ikuspegi orokor bat eskaini nahirik.

BASAURI SARIA Joan deneko azken bi urte honetan bezala, Bilbaoko Ateneo delakoak prestatu berria du III Euskal Azterketaz "Basauri" Saria, Basauri bertako Udalaren laguntzapean. Aurtengo sariketa hau sozial antroopologiaz izanen da, honako baldintza hauen arabera:

—Esan bezala, gaia Euskal Herriko sozial antropologiaz izanen da, ikerketa mailan eta inon argitara gabea.

—Edonork parte har ezake sariketa honetan. Lanak, aldiz, euskaraz nahiz gaztelaniaz soilik molda daitezke.

—Idazlanak, nahi bezain luze, hiru kopiatan aurkeztuko dira, makinaz idatziak, bi lerrotarik bat eta orri alde bakar batez.

—Idazlanok izenordez bidaliko dira. Beste sobre itxi batetan, aldiz, egilearen izen-deiturak eta zuzenbidea adieraziko dira, sobre azalean harako izenordea aipatuz.

—Bidal ahal izateko azken epea, berriz, 1973ko, abuztuaren 31an. amaituko da.

—Idazlanok korreoz bidaliko dira, Bilbaoko Ateneo bertara, hau da, zuzenbide honetara, alegia: III Euskal Azterketaz "Basauri" Saria. Colon Larreategui, 4-2.º.

—Sria 100.000,— pta. hainako izanen da. Basauriko Udala jabetuko da, bestalde, obra sarituaz, bai eta argitaratzeko eskubideez ere.

BERRIZ ENEKO Oraintxe dator justu justuan urtebete ENEKO euskal izena Madrilen debekatua izan zenetik. Bere ordez, **Iñigo** edo **Ignacio** jarri behar omen da. Honela adiarazten zen, inolazko baldintzarik gabe, "Ministerio de Justicia" delakoaren iazko martxoaren 5eko. boletinean.

Hauzi honi aipagarri deritzagu, eta ez bakarrikk euskal izendegiko izenik hedatuen, zaharren eta historian zehar erabilienetako bat galarazi zigutelako, bai eta —edo areago— Eneko-rekin egin digutena beste amaikatxorekin ere egin dezaketelako baizik.

Harako erabakia, Gipuzkoakoa herri batetako juezak eman zuen okerreko agiri maltzur bategatik gertatu zen, zorigaiztoko planteamendu batez, eta Madrilen ez zuten Gipuzkoatik bidali zieten iritzia baieztu baino, besterik gabe hala zelakoan.

Dena den, erabaki harek izan zuen ondorio anitz, eta oraintsu jakin ahal izan dugunez, "Dirección General de Registros" delakoak zenbait xehetasun eta azterpide eskatu berri dio Nafarroako Diputazioari, **Eneko** izenaz bere iritzia eman dizaion. Beraz, hauzia ez dago erabat galdua, aitzitik, Madrileko erakunde honek Nafarroara jo duenetik argi bila, badirudi badela hor zerbait.

Izan ere, arazo garbia de Enekorena, eta gezurra dirudi Gipuzkoako errejistro batetan horrelako hanka sartzerik izatea. Dudarik gabe, errejistrotako arduradunek zertxobait jakin behar lukete euskal izendegiaz, bai eta gure kondairaz, literaturaz eta bestez ede. Eta besterik ezean, gutienik borondate apur bat, zenbaitek fontasmak ikusten bait ditu edozein izenetan, eta ezin uka, erderazko izen asko eta asko ere baztertu egin beharko genituzkeela, euskarazkoak pasatzen ditugun galbaheetan pasatu behar bagenitu.

Baina, hariari jarraituz, **Eneko ez dirudiela pertsona izena** esaten zen informe hartan. Horrez gainera, **ez duela garbi adiarazten arra ala emearen izena den,** eta **ez dela Gipuzkoan inor izen hori duenik.** Esan beharrik ez dugu, benetan hitz arinak direla, alde batetatik euskal izena delako, eta ez duelako inork euskal izen bat beste hizkuntza batetako adimenez epaitzeko eskubiderik. Eta bestetatik, **Eneko** delako, hain zuzen, gaztelaniaz bezelaxe "o" batez amaitzen den gizakume euskal izenik ezagun bakarreneta-ko. Horrez gainera, ez omen dago inor Eneko izenekorik Gipuzkoan. Nik paretxo bat ezagutzen dut. Dena den, ez dagoela horren seguru badago jaun hori, nahi nuke jakin dauden guztiei kakak garbitzeko eta gauez bineroia emateko prest egonen ote lizatekeen.

Badugu besterik ere. Harako errejistrotako fiskalak esan omen du, **Eneko** izenak (ez zuen ba arduradunak esaten ez zela pertsona izena?) gaztelaniazko itzulpena duela, **Iñigo,** alegia. Eta itzulpenik duen izenik ezin daitekeenez jarri... ba, **Eneko** ezin daiteke onar.

Fiskal honek ez bide daki, eta euskaldun askok ere ikasi beharra du, **Iñigo** eta **Eneko** sustrai berdinekok izenak badira ere, ez dela bata bestearen itzulpen, izen berberaren bi era desberdin baino. Zaharra eta jatorra **Eneko** noski, eta honengandik sortua **Iñigo.** Adibidez, erdarazko **Santiago, Diego, Jacobo, Jaime** eta **Yago** izenak bat baino ez dira funtsean, urteren buruz aldatuak eta bereziak, baina ez du oraindik inork esan bat besteren itzulpen denik. Gainera, txarrenean ere, **Iñigok** erdarazko itzulpena izateko erdarazko izena izan behar luke, eta hau ere guztiz diskutigarria lizateke.

Eta **Iñigo**-rekin ezezik, **Ignacio**-rekin ere senidetu nahi digute gure **Eneko** maitea. Ez dira konturatzen ez dutela elkarrekin zer ikusirik. Ez guti eta ez asko, BATERE EZ. Eta honen berri ere, ez daki agian jende xeheak.

Nahasketa hau, **Iñigo** eta **Ignacio** bat direla, eta ondorioz, **Eneko** eta **Ignacio** izen berbera, XVI mendetik omen datorkigu. Eta itxura denz, nahasketa honen sortzaile, nahiezta egin bazuen ere, "Inazio gure patroi haundia" izan zen. Izan ere, gure Loiolako semea **Iñigo** genduen jaiotzez, eta beste zenbait fraile eta lekaimek bezala aldatu egin zuen bere izena, hau da, **Ignacio** hartu zuen erlijio izen bezala. Geroztik, zenbaitek pentsatu izan du, **Iñigo** eta **Ignacio** kidekoak direla. Baina ez da halakorik, aitzitik, bi izen hauen artean dagoen zer ikusi bakarra, gure azpeitiarrak, kasualitatez eta ustekabean, biak erbili zituela baino ez da. Hitz batez, **Juan, Pedro** edo besteren bat hauta zezakeen, baina hara non **Ignacio** hautatu zuen. Hemendik senidetasun bat aurkitu nahi izatera bada erabateko aldea.

EUSKARA MINTZATUA Mahai gainean ditugu hiru irakurleren gutunak. Gaurkoz, hirutarik bati, behintzat, erabat aipagarri deritzagu. Behar bada egileak ez du argitaratzeko asmotan idatzi, guk, ordea, merezi duela uste dugu, ea behingoan zertan garen erabakitzen dugun. Zirt edo zarta, bagara ala ez gara? Bestalde, honako gutun hau guk argitarazi baino zerbait luzexeago da, hala ere, mozketaren bat edo beste egin diogu, luzeegi gerta ez dakigun, baina, beti ere, mamia bere horretan utziz:

"Amatiño gartsu hori:

Zure artikuluak gogoz irakurtzen ditut; eta irakurle anitz zure lanak irakurtzetik hasten de'a gauza jakina da. Gauza ageria da, era berean, euskaltzale askorekin duzula harremana, eta, hortaz, egoera onean zagozela euskarari buruzko irizpidek emateko.

Euskararen mailan EGINETARA pasatzeko unea noiz iango den ez dakit. Jakina: Z. ARGIA, ANAITASUNA, GERO, JAKIN eta abar, eta abar, eta ikastolak bereziki, eginetara horretan dexente abiaturik gagozela adiarazten dute.

Baina horietan guztietan, euskara IDATZIA da gaia; eta kantariekin berekin ere KANPOAN gelditzen da euskara, hizkuntza alegia. Kantariengan euskara BESTEREN ENTZUKIZUNA da; eta liburu eta aldizkarietan BESTEREN IRAKURKIZUNA. Hizkuntza MINTZATUA erdara izan daiteke eta da.

Pausu bat emateko garaia heldu da. Zein pausu? Euskaldunok, euskaltzaleok, PROBOKAZIORA pasatzekoa. Nolakoa? Mila aldiz aipatua izan da hau, baina seku'an ez mamitua: euskara HIZKUNTZA BAKARTZAT erabiltzeko erakunde edo organizazino bat antolatzea. Organizazino horrek, berez, PROBOKAZIOAREN MAILA beharko luke, probokazio bortxagabea noski. Nolakoa?

1) Bilburetan, nahiz gehienak erdaldunak izan, euskaldunen artean euskara hutsez egitea. 2) Bilkuretan, beraz, erdaldun bakarren bat euskaldunen artean gertatzekotan, euskara hutsez egitea. 3) Ikstolen edo antzekoen bilkuretan, euskaraz, zer gerta ere. 4) Etxeko telefonoan, lehen hitza euskaraz. 5) Dendetan, bankuetan, eta abar, lehen hitza euskaraz; eta euskaraz hitzegiterik ez badago, beste denda batera. 6) Euskararen kontrakoei boikot ekonomikoa. 7) Organizazinokoen artean, baita komertzio-gutuneria bera, euskaraz. 8) Euskara defenditu nahi (omen) dutenei, euskara hutsez hitzegin, ala baterez. Eta horrelakoak.

Euskara MINTZATUAREN MAILAN hasi behar dugu jotzen, eta hitzezko sasi-euskaltzale erderomano amorratu horiek jarri behar ditugu defentsiban: euskaldundu ala larrugorrian gelditu. Hautu hau egin behar. Euskara ez da bertako indioen arazoa, DENON ARAZOA baizik".

Honaino irakurle honen gutuna. Eta guk zer esan...? Euskaldunok dugu hitza eta ekintza.

DENETARIK Hilaren 10ean. Nafarroako Ikastoletako haurrak erromes bildu ziren Xabierren. Hori dela eta meza euskaraz izan zen bertan, duela ia bostehun urte Xabierrek berak ama-hizkuntzan egin ohi zituen otoitzen oroitgarri.

● Hilabete honetan, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako zenbait herritan behintzat, Arbola Eguna" ospatu izan da. Egitarau guztiz bakana, irakurleak ikus dezakeenez: Meza, zenbait kimu berriren ereitzea, haurrek arbolari eskainitako zenbait olerkiren irakurraldia, eta, azkenik, "Himno del Arbol" delakoa kantatu.

Ezin igarri ezinik dihardugu "Himno del Arbol" delako hori zein kanta mota den. "Gernikako Arbola" ote? Guk geuk behintzat ez dakigu besterik den. Bestalde, ez diogu inolaz ere antzik ematen nola lizatekeen posible gure Udaletxeko agintariek —"pinguino"z jantzirik— eta gure haurrak —baserritar eta gorulari— arbola baten inguruan erdal kantaren bat kantatzea.

Dena den, daitekeena, gauza harrigarriagorik ikusiak gara, bai eta —zoritxarrez— aurrerantzean ikusteko asmorik ere.

● Poz atseginez jakin dugu martxoaren 10etik 17ra. arteko astearen buruan Zaragozan eratu diren saioen berri. Aaragoi hiri hartako euskal ikasleek egitarau polita moldatu dute. Denetarik izan da, hots, dantzaldiak, olerki ihardunak, mintzaldiak, kanta saioak, pintura erakusketak eta beste.

Txalogarri deritzagu gure ikasleen ekintza honi. Beharrezko, bestalde, Euskal Herritik at hala beharrez diharduten gazteak erabateko erdal girotan gal ez dakizkigun. Mila eta bostehunen bat euskaldún gazte omen, Salduban.

Hoik guztiok gure artean beharko genituzke, noski. Eta itxura denez, ez gara gu horrela uste dugun bakarrak, zeren, bestela, zer dela eta gure ikasleak Zaragoza, Madril, Bordele, Paris eta Salamancaraino joan beharra, eta hor zeharrekoak. aldiz, Bilbao, Iruñe eta —beste maila batetan— Eibarrera?

Esate baterako, Eibarko Unibertsitate Laboral delakoan % 90 ikasle ez dira ez eibartarrak ez eta Euskal Herrikoak. Baina, jakina, Gipuzkoa eta Euskal Herriko irakaskintza estadistiketan "horrelakoak" ere kontutan hartzen dira.

Artean, urte gutiren buruan zenbait mailatan gure Herriaren gidari izan behar dutenak hor zehar sakabanaturik, eta hemen berriz, erdal giroa nagusi. Izan ere, edozein postura, ezetz harako Unibertsitate Laboraleko ikasleek Zaragozakoek moldatu berri duen hainako programa sekula moldatu.

● "Estitxu"k bere lehen erdal diska azaldu berri du. EL CORREO ESPAÑOL-El Pueblo Vasco egunkarian "Munitibar" deritzan idazleari irakurtzen ahal diogunez, euskal kantak ez omen dira erdal irratietan entzuten, beraz, euskal kantariek profesionaltasun bati atxiki behar dabiote, nahi eta nahiezko omen dute erdaraz kantatu beharra.

Daitekeena, noski, eta "Munitibar"ek ematen dizkigun arrazoiez gainera, "Estitxu"k berak ere izan dezake besteren bat edo beste. Dena den, diotenez, euskal entzulea urria bada, erdal diskak azaltzeak ez du ugalduko. Tira, guk uste behintzat! Tokitan dago goraxeago aipatu dugun "probokazioa".

Pentsa beza "Estitxu"k zertan diharduen, eta jarrai "Munitibar", oraintxe ezagutzen hasiak bait gara.

AMATIÑO



(c) Ministerio de Cultura 2005

Mediterraneo pake leku... Ala andien joko leku !

Israel eta Arabeen arteko borroka dela eta Mediterraneoko itsasoaz itzegiteak badu, bai, gaurkotasunik. Rusiak eta Ipar Amerikak munduarekiko eraturik duten estratejian eta jokoan garrantzirik andienetako lekua da Mediterraneoa. Munduko bigarren guduaz gero Ipar Amerikarrak izan dira itsasalde onen jaun eta jabe. Ogei bat urtetan lasai agindu dute. Milloi mordo ederra ere ezarri dute egoerari elerazteko. Baina, orratx, lau edo bost urtetan egoera asko aldatu da. 1967 urtez gero beren agintaritza galdu dute.

An eta emen, poliki poliki, rusoen gudu itsasontziak azaldu dira Mediterraneoko itsasaldean. Amerikarren ainbat ugari eta indartsu ez dira baina nahiko dira iparamerikarrak jaun eta jabe ez direla adierazteko. Lehen itsas zabalean lasai ibili zitezkeen, orain Iparamerikarrek jakin dute nahi dutenik egiterik ez dutela. Emendik aurrera erne ibili behar da.

Lybia utzi beharra izan du. Wheelus-Fieldeko base ikaragarria an gelditu da Lybiako agintariek nahi izan dutelako. Sto. Domingon jokatu zuen bezala jokatzerik ez zuen. Erabaki orien aurka ezin zezakeen bere «flotaren» bidez presio edo indarrarik egin. Izan ere, rusoak oso urrean arkitzen ziren. Auek ez zuten geldirik egoteko asmorik. Burua makurturik, zarata andirik atera gabe utzi behar izan dute iparamerikarrek.

Beste orrenbeste gertatu zaio Rusia berari ere. Egiptoko lehendakariak aldegiteko agindu zienean, marmarka andirik egin gabe, utzi behar izan zuen. Ala nahi eta indarrez gelditzea erabaki bazuen Ipar Amerikaren «flotak» zer joko aterako ote zuen? Ezin zezakeen Rusiak gudu baten arriskua onartu. Burua makurturik aldegin beharra izan zuen.

Rusiak eta Ipar Amerikak ondo dakite, jakin ere, guduzko borrokarik bien artean sortzerik ez dagoela. Ori gogoan izanik eratzen dute jokoa. Pelotan bi kuadro barruan ari direla dirudi. Tiki emendik, taka andik baina zarta andirik gabe, gauza lertzeko arriskuan jarri gabe.

Bigarren gudua bukatu zenean, Rusiaren indarra Mediterraneoan utsa zen. Ipar Amerikak azpi jokoz baliaturik, Otan batetik Cento bestetik, Inglesen medioz askotan, sartu ziren. Mediterraneo sartaldeko lurraldeetan ere ez zuen Rusiak aginpiderik. Inguraturik edo blokeaturik arkitzen zela zirudien. 1955 urtean indarra zuela ikusirik Cento erakundeari aurka egin zion. Cento erakunde ori. Turkiak, Irak, Iran, Bretaina Andiek osatzen zuten Ipar Amerikaren babesean. Erakunde ori Rusiari eusteko egina zen. Rusiak burua altxa zuenean Nasser pozik azaldu zen. Rusiak bideak erekitzen asi zen, beraz.

Baina, bidea 1956 urtean zabaldu zitzaion, ain zuzen, Frantzia, Bretaina Andia eta Ipar Amerika Israelen alde jarri ziranean.

Arabeak besoak zabalik artu zuten Rusiaren laguntza. Beste inoren laguntzarik ez zuten. Txekoslobakiaren bidez lagundu zien Rusiak Egipto, Siria eta Iraki. Baina Rusia bera ez al zen inperialista bihurtzen ari?

Ez eta gutxiago ere. Sinain geratatutako arabeentzat gogorregia zen esker onez ez artzeko Rusiaren laguntza. Bilutsik arkitzen ziren eta nola ez ba Rusiaren teknikoak, diru laguntza eta armak artu. Nola izan zitekeen momentu aretan Rusia inperialista?

Ipar Amerikaren jokoa nabarmenegia zen Rusiaren laguntza ez onartzeko. Onez ala beharrez eta askotan onez eta beharrez eskatu zieten Sudan, Yemen, Siria, Egipto t.ak Rusiari laguntza. Orrela Rusia sartu eta sustraitu zen Arabeen lurraldeetan. Orrela ulertzen da Mediterraneoan bere gudu itsasontziz azaltzea ere. Ipar Amerikak eskubidea badu Rusiak ere eskubidea du bere interesak zaintzeko.

Mediterraneoko estaduek zer egin dezateke? Frantziak, adibidez, nola joka dezake? Bi andi orien tartean inoiz bitarteko egingo du baina borrokaren eta jokaren abiadurari asko eragin gabe ordea. Ezer gutxi dezake.

Beste estaduak? Auek bi andi maundi orien morroi edo mutil dira. Inoiz azarratuko dira baina luzarora bietako baten mutil izan behar. Txinak oraindik ezer gutxi dezake. Etxean badu nahiko lan.

Mediterraneoko estadoak borrokan asten diranean Rusiaren eta Ipar Amerikaren itzalpean borrokatzen dira. Borroka ori bi andi-maundi orien interesetara murgiltzen da.

Mediterraneoa ez da andia baina jokoaren erdian arkitzen da. Vietnamia izan da azken aldi onetan jendearen begiak bereganatu dituana. Laister Mediterraneoa izatea, ez litzake arritzekoa izango. Besten artean gauza bat gogoan izan behar dugu: irutatik bi petroleoa Arabian, Irak eta Iranen arkitzen da. Bostetik lau petroleo ori iparamerikarren esku dago ordea. Interes ikaragarriak ditu beraz Ipar Amerikak. Petroleo ori zaitzeko, leku batetik bestera eramateko Mediterraneoan indarra izateak duen garrantzia begien bistan dagoen gauza da. Oraingoz Ipar Amerikak orri eusten dio. Suezko kanala itxirik egoteak ez dio kalte andirik egiten. Rusiari ordea ondamendia sortzen dio. Persiko itsas kolkoan dituen interesak Sueziko kanaletik ederki pasatzen ziren. Orain ezin dute.

Jokoa beraz orretan datza? Noiz arte iraungo du egoera onek? Rusiari oraingoz arrazoi politikoak geldirik egoteko agintzen diote. Baina diru zama anditzen dijoan bezala ez al zaio gogorregi egingo eta gauzak aldatzeko erabakia artuko? Gauzak aldatzen orretan, ordea, ez pentsa zuzenean Ipar Amerikak eta Rusiak borroka egingo dutenik. Beren mutillak jokatu beharko dira.

SUEZko kanala erekiko da bi andimaundien interesei dagokienean. Bien bitartean txorimaluak bezala ibiliko dira batipat arabeak. Israel berak ere ez du askatasunik. Ezin dezake Ipar Amerikaren interesen aurka joka. Ipar Amerikaren laguntza galtzen badu, luzarora bere burua galdua du.

Denak dira andien mutil. Andien interesak erabakitzen dute txikien interesez ballatuz, ordea.

J. ELUSTONDO

GURE HERRIGINTZA ARLOTEA ETA EKONOMISMOA

Gauza guti agertzen da hain argiro, nola Españiako ekonomiaren sasoia eta kemena. Zertan agertzen den saso ihori aipatuko dugu soilik, eta ez gara lantxo honetan kemen honen sustraiak arakatzen hasiko.

Badakigu diruaren izkutukiak misterioz beteak direla. Badakigu ez dela batere erraza, samurra eta gozoa diru azazoen hauzi mauzitan murgiltzea. Halere, ez dago inongo azterketarik eta analisisik egin beharrik begien bistan dagoen gauza jakina eta ezaguna behatu eta ikusteko. Gertakizun jakin hori, hau baino ez da. 1971-ko Abendutik hona, peseta —diru mespreziatu hori—, bi aldiz birbaliatua izan da, munduko eguzki eta izar nagusiari bere distira piskabat itzalazteraino. Ez hori bakarrik, daitekeena da, berriro ere peseta indartzea eta dolarra ahultzea. Une honetan, martxoaren 16-an ari naiz idazten, ez dakigu ze erabaki hartuko duen Españiako Gobernuak. Demagun, merkatuari libro uzten diola pesetaren eta dolarraren arteko prezioa eta ganbio-neurria erabakitzen. Jokatuko nuke, merkatuaren joku libro horretatik peseta baliotsuago aterako dela dolarraren aurrean, hots, peseta gutiago beharko dela dolarra erosi ahal izateko.

Zergatik uste dut hori gertatuko dena? Erantzun xinplea emango dut, ez bait naiz hemen korapilaketan hasiko. Arrazoi xinplea hau da: gezurra dirudi baino gaurregun, oraino, peseta erosleak, peseta bila dabiltzanak, gehiago izango dira, pesetak dolarretan trukatu nahi dituztenak baino. Eta zergatik hori? Españiak inoiz eduki ez dituen adinako diru-erreserbak eta diru-gordairuak dauzkalako? Ez horregatik bakarrik, baina hortan ere arrazoi puska bat badagoela ikus dezazun, argibide hauxe emango dizut. Gaur berton, Españiak zenbat diruerreserba daduka gorderik? 5.000 miloi dolarretik gora, urreak eta beste diru mota oro dolarretan ematen badugu. Eta gaur berton, zenbat urre daduka USA-k, munduko nagusiak? Badirudi 13.000-14.000 dolar baino ez dela, oraindik eskuetan daukan urre-multzoa. Garbi dago beraz, une honetan, eta diru gordairuari soilik behatuz, pesetaren sasoia kementsuaog agertzen dela dolarrarena baino. Horregatik —"Gresham-en lege" hura dela argibide—, diru ona gorde egiten da eta diru ahula eskutatik utzi. Tenore honetan, peseta gorde nahiago du jendeak eta dolarra eman. Izan ere hura indartu egingo bait da, hau, aldiz, jautsi.

Aitor dezadan, haatik, pesetak une honetan merezi dezakeen estimua ez datorrela, ez bakarrik ez nagusiki, hortatik, hots, Espaiñiak dadukan diruerreserbaren pila ikaragarritik.

Hamabi urte hauetan, Españiako ekonomiak ia inork ez bezalako hazkundea burutu du. Badakigu, nola ez, zabaltzea eta handitzea ez dela aski. Hazkundeak, egiazko hazkundea izango bada, egitura-aldaketa sakona eskatzen du; gizarte osoaren mugimendua eta aurrerapena eskatzen du, ideolojian, politikan, gizarteko bizitzan eta ekonomian. Halere, gauza bat badakigu zalantzarik gabe. Ekonomia bat biziro eta bortizki handitzen denean, bere produzioa goi-mailatara doanean, erresuma horren gizartea eta politika ere aldatu eta moldatuko direla, egitura-aldaketa mugituko dela, alegia, herri horren baitan. Eta gizarteko eta politikako mugimendu eta aldaketa hori hertsiki lotua eta besarkatua dago ekonomiak erdietsi duen mailari. Biziro eta bortizki hazi den ekonomiak, gizarte aldaketa mueta bat dakar; geldirik eta elbarrituik dagoen ekonomiagandik, aldiz, edozer espero daiteke.

Hau guzia hontara dator. Esango nuke, errealitate honetaz atzerrietan mila bider argiago eta sakonago jabetu direla, erresuma barnean baino. Nazioarteko harremanak eta erlazioak hainbeste aldatu badira, eta aldatzera badoaz (adi, Txina-Españiaren akordioari), printzipalki honengatik izan da, alegia, Españiak ekonomia-alorrean lortu duen arrakastagatik. Barnekoak berriz, hein handi batetan behintzat, ukaezinezko errealitate horri ez diote zinez merezi duen garrantzia opatzen. Anitz "estratejia" sozial, politiko eta kultural ikusirik, zera agertzen da ezin garbiago. Duela hamabost edo hogei urtetako datoak daduzkatela beren azterketaren oinarritzat behin betiko ezarriak eta finkatuak. Eta jakina, jokabide hori ez da, ez azterketa, ez estratejia, ez zientzia. Jokabide hori, ideologoen joku hertsi eta antzu bat baino ez da, eta bizkitartean belaunaldien bizitza badoa eta badoa.

Baina ez hori bakarrik. Beha dezagun aurreruntz. Egia esan txunditurik gelditu naiz arestian. Munduan den ikergu onenetako batek galdera honi erantzun nahi izan dio: "Hemendik hamar urtetara zein mailatan aurkituko ote dira munduko, eta printzipalki Mendebaleko erresumak". Eta ondorio honetara heldu dira. Españia izango omen da, O.C.D.E.-ko erresumen artean, bere ekonomia azkarrenik handituko duena.

Gehiago esaterik merezi ahal du? Ez dudarik izan, gero, pronostiko horrek egiaren antza baduenik. Halere, kontuan erortzeko ahalmena galdu dugu. Ez gaitezen gero gure herrigintza arlotean "dato" hauek geureganatu gabe ibili. Horrela gabiltza, bai, eta gabiltzan bezala gabiltzalako, herrigintza deitzera merezi duen ekintzarik ere ba ote dugu, gero.

Badakit norbaitek, agian gehiegi txok, ikuspegi honetan, alegia, ekonomiari hainbesteko garrantzia emate honetan, zera ikusi ustekoizango duela: "ekonomismoa" deritzan gaitza, gauza oro ekonomiaren bidez esplika nahi izatea. Egia esan, nik beste hau uste dut zinez. Ekonomiaz tutik ez dakitenak erortzen dira gaitz honetan.

Halere, esan behar dut esatekoa. Ez dakit, gure artean gaitz are makurragoa ez ote dagoen txikihedatua: alegia, herrigintzaren lema eskuetan har daitekeela eta herri-ekintzaren jokabide zuzenena asma daitekeela uste du gure artean zenbaitek, ekonomiaren, hots produzio-indarren eta produzio-erlazioen azterketarik tutik ere egin gabe. Eta gaitz hau ekonomismo bezain kaltegarria ez denik ez dunik esango.

G. ANSOLA

CAN

Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrezki Kutxa



EUSKAL ERRATI SAIOAK

Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan etorriak

Baserriaren alde

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

Kontu emen! Euki gogoan!
Adiskide ta etxekojaunok!
Zuen enmazteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalderako apaingarri
Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa
SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»
LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)

(c) Ministerio de Cultura 2005

Zaharrak eta berriak

Har pipa, eta jar gaitezen patxadan, gauzaok lasai pentsatzeko.

Azkeneko boladan, gure arteko diferentzia publikoak asko gaiztatu dira. Ezkertiarrak direla behin, eta eskuindarrak direla hurrengoan. «H» dela, edo ikastolak direla: haserre asko da. Batzuk hestu eta larri dira, beste larri eta hesturen batzuen esanek larrituta. Humore txarraren boladan gaude. Baita nazkatuta ere, denak denarekin nazkatuta daudela, esango litzake.

Zer ari da Euskal Herrian pasatzen? Istiluak ikastoletan, istiluak idazleen artean, istiluak idazleen eta Euskaltzaindiaren artean, euskaltzainen beren artean berdin, aldizkari eta Editorialen artean istiluak, Editorialen nahiz aldizkarien barruan ere istiluak eta istiluak nonahi. Istilumendi onik bada, ezer onik bada behintzat, Euskal Herrian.

Jende asko dago egoera honekin nazkatuta. Denak, dirudienez. Baina egoera hau bera, neurri haundi batetan, nazkak ez bestek sortua dugu bera ere, ezpairik gabe.

HAU EZ DA AZTERKETA BAT

Tensio altuan bizi dugu egunoroko bizitza, eta geroz eta sarriago leher egiten digu bizitza honek, izkinaren batetatik. Datoak ugalduz doaz, Kintanaren behinolako Ukronia eta egunotako Haranburu-Altunaren Hitzaurrearen artean. Esplosioak bezala dira. Bistan dago, ez dagoela istilu horiek denak berdintzerik eta zaku berean sartzerik. Oso diferenteak dira, bai lan haiek sortarazi zituzten problemak (berdin aipa nezake hemen Arrasate, Zumaia, Andoain edo beste makina bat istilu) eta baita gero haiekin sortu direnak ere. Problemaon benetako azterketa batek, kasuok banan-banan tratatu beharko lituzke. Bakoitzaren aurrez-emanak, leher egiteko forma, tartean ziren pertsonen eskuartea eta beste ikusiz.

Nik ez dut hori egingo. Situazio jeneralari buruz ohar jeneral batzuk egitera bakarrik mugatuko naiz. Konparatistika piska bat, axaletik. Eta juezarena edo profetarena, ezinbestezkoa gertatuko den baino gehiago batik-bat, jokatu nahi gabe. Zerbait, ezinbestezkoa izango da, eta barkatuko ahal zait.

Soluziorik ez da bilatuko. Galdera honek bakarrik gidatuko gaitu: zer ari da gertatzen? Eta —oraingoz— ez beste honek: zer egin? Eta lehenengo harek ere, axal samarrean bakarrik: beraz, zer ikusten da? Denok bait dakigu, fenomeno sozialak izebergen, izotz-mendien antzekoak direla: punta bakarrik dutela agirian. Bestea izkutuan dago. Eta hemen izkutukoak izkutuan utziko dira.

HAZALDI BERRIA

Gure gaurko egoeraren esplikazioa, gure atzoko egoeran bilatu behar da. 64/65 urte aldera, gehienbat. Urte haietan mundu berri bat agertzen da: Mirande, Aresti, Txillardegi, Otsalar, etabar. Belaunaldi literario berria zen, eta mundu berri bat zekarren. Beharbada hobeto esango litzake beste modu honetan: hazaldi hau gurasoena ez bezalako mundu berri batetan bizi zela (berritasun guziak nolakoak bait dira, noski). Mitxelenak Leturiaren egunkari ezkutuari (1957) "giro berrien seinalagarri" zeritzan. Berdin juzgatzen zuen Peru Leartzakoren agerpena (1960). Lau urte geroago, 1964ean, San Martinek hitzokin agurtzen zuen Arestiren Harri eta Herri: "aize berriak dakarzki euskal poesiaren erresumara, arnasa berriak izkuntza zarrari".

Geroxeago joera politiko berriak ere agertu ziren, makina bat zalapartarekin gainera.

Zaharrak zahar eta berriak berri, ez zituzten zahar denek berriok ongi hartu, eta haien lana "euskeraz zegoelako" izan ez balitz, okerrago hartuko zituzketen. Berrioi asko "barkatzen" zitzaien, euskeraz jardutearren. Baina, funtsean, ez hazaldi berri honen mentalidadea, ez problematika, ez estiloa, ez jasak, eta ezta euskera bera ere ("mordoiloa"), gustatzen zitzaizkien, makina bat nekerekin gerra ondorenean superbizi ziren lehenagokoei. Sasiko umeak ziren berriok, nolabait esateko. Hazaldi berri hau, euskeraz baino askoz gehiago erderaz irakurritakoa zen. Ezagutu, berriok doi-doi ezagutzen zuten gure tradiziorik batere. Eta ezagutzen zutena ere baino gutiago onartzen zuten, onartu.

Gerra aurretik zetozenak, gerra aurrearekin identifikaturik sentitzen ziren. Gerokoei identifikazio hori falta zitzaien, edo ez zuten berezkoa behintzat (eta badirudi, gerora ere batzuek ez dutela lortu, eta gerra aurrea eta gerra "beste batzuen" kontu antzean juzgatzen dituztela). Gerra egin zutenek, olatu faxistaren azpian ere, lehenagoko indarrari eusten ahalegiten zuten. Erresistentziari lotu zitzaizkion, hitz honen esanahi hertsienean. Ez gintezela ito behintzat! Beste gisa eta modu batzukin agertu bazen ere, berebiziko atsedena izan behar zuen belaunaldi sofritu eta merezitu honentzat, hazaldi berria burua jasotzen ikusteak: bazetozen ondorengoak. Erreleboa.

Geroxeago, Europa guziko moduan, hazaldi berriari "uhin berria" edo olatu berria esaten zitzaion. Atzera ahaztu den izendapen bat.

"Uhin berriari" ez zitzaion kritika eta eraso gogorrik faltatu. Horra Txillardegi eta Aresti, lekuko. Batez ere Orixe haundiak kopla gutirekin esaten zituen esatekoak. Ta Orixe bazen norbait. Baina sekretoan, zaharretako askok sinpatia eta begiramendu haundiarekin ikusten zituen gazteok. Nolanahi ere, gerra ondorenean bildur izugarria zegoen, gureak egin zuela. Ta faxismoaren eskoletatik pasatako gazteak hain gartsuki euskaltzaletzeak, zaharren itxaropenak berak superatzen zituen, apika.

DIFERENTZIETATIK KONTRADIZIOETARA

Bolada hori azaltzen ezin orain luzatuko naiz. Baina inportante litzake hau: hazaldien arteko diferentziei orduan ez zitzaiela, zedukaten inportantzia, eman. Diferentziaok desarroiloarekin berez berdinduko zirela, pentsatzen zen agian. Horiek gazteen gaztekeriak zirela, eta gazte izatea, denborarekin berez sendatzen den gaitza dela.

Haatik ere, belaunaldi berria ez da tradiziora itzuli, ez da tradizioan asimilatu. Eta diferentziak, tipiagotu ordez, larriagotu egin dira.

Beharbada orduko zaharrak beren teman setatuegirik zeuden, eta ez zioten denboraren berritasunari antzeman. Bidegabeki erasota, zapalduta eta persegituta, oharkabean gerra aurrea idealizatu zuten, eta gazteengandik horixe bera itxaro zuten. Beren atzean jarriko zirela, komando diziplinatu baten moduan segituko ziela. Zaharrei lehenagoko egun hobeen oroitzapenak indar ematen zien. Gazteek ez zituzten egun haiek ezagutzen.

Beharbada gazteak beren buruetan sinestuegirik zeuden. Mundua deskubritu duten ameslari amorratuak izango ziren. Ezagutzen ez zituzten gauzak kondenatuko edo bedeinkatuko zituzten. Dena den, hazaldien arteko mediazioa, komunikazio bizia, faltatu zen. Eta oraingo problemarik eta premiarik haundienetako bat, oraindik ere, orduan egin ez zen hori lehenbailehen egitea, iruditzen zait. Gainera, edozein hazaldik bezalaxe, harek ere gurasoena "superatzeko" asmoa zuen, noski. Ta apenas edukiko zuen astirik, "zaharrei" entzuten egoteko.

Zentzugabekeria litzake, orduko errudunen bila hastea. Seguru asko, kondizio haietan gertatu zen bezalaxe gertatu, beste erremediorik ez zegoen. Nolanahi ere, zaharrei eusten eta defendatzen ahalegin beharragatik, gazteak konkistatu nahiagatik, tradizio faltagatik eta gaztetasunagatik, eta bien arteko mediazio faltagatik, talde bien arteko diferentziei ez zitzaien behar haina begiratu.

Hazaldi berriak ez zuen zaharra berriztatu: izerdi berria ez zen adar zaharretara ailegatzen. Eta hazaldi zaharrak ez zion berriari tradizioa pasatzen. Etendura bat sortu zen, horrela. Beraz, zaharrei mundu berria geroz eta arrotzago bihurtzen zitzaien; berriei geroz eta gutiago esaten zien zaharren munduak. Sustraiak tradizioan nahitaezkoak bait dira, berriok tradizioari atxiki zitzaizkionean, ez zioten gurasoen tradizioari heldu, aspaldiko mendeetara itzuli ziren batez ere: "klasikoetara". Baina kultura, errealidade sozial-politiko orokorrarekin hestu-hestu bateginik bait dago, gurasoen tradizioen gainetik klasikoetara itzultzeaz, gure historia sozio-politiko eta kultural berrieneko problemarik, ikuspiderik, esperentziarik eta ondasunik hoberenak galtzen uzten ziren. Gurasoen tradizioak eman behar zuena, eta klasikoek ezin eman zezaketena gabe hazi da belaunaldi berria. Jarraitasunak bakarrik eman zezakeena gabe. Guri horixe gustatu ala ez, gure gurasoen ondorengoak bait gara, eta ez aspaldiko haienak, hauk gehiago gustatzen bazaizkigu ere. Klasikoengana bai, itzuli beharra zegoen. Baina baita gurasoengana ere. Etendura baten ondokoak bait gara.

Gero, piskana-piskana, noizpait itxaro zitekeenaren arras kontra, hazaldi berria dena hauziperatuz eta krisian jarriz joan da: politika, literatura, morala, kultura, Eliza, fedea, tradizioa inkarnatzen zuten pertsonak, planteamoldeak eta ikuskerak. Dena. Ortografia bera ere (horribile dictu!).

Eta honez gero, lehenagoko belaunaldien arteko diferentzien lekuan, kontradizio nabarmenak eta burruka deklaratua daduzkagu. Burruka honetan norkeriak eta arrazoiak pertsonalizatzeak, harrokeriak eta ignorantziak, setak eta marrokeriak, zerikusi haundia edukiko dute, aldizka. Baina hori dena garbituta ere, guzi hori baztertuko bagenu ere, funtsean problemak hortxe gelditu lirake. Zerbait errazago izango litzake, noski, buruhausteok konpontzea. Baina hori egitea, oraindik ez litzake, soluziorik aurkitzea. Dagoeneko ia ez.

Joxe Azurmendi

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

¡JABON LAGARTO!

(c) Ministerio de Cultura 2005

LIBURUAK

ITSASOA UR-BAZTER LUZEA DA

Honela deritza Martin Ugaldek GEROn atera duen nobelari. Ederki adierazten du Carlos Bizkarrondo margolariak liburuaren azalean, mendien bizkar ondotik, «itsasoa ur-bazter luzea dela».

Liburuak, nobelaren izena darama, baina GEROren 22garren liburua ez du nobela honek bakarrik osatzen. Martin Ugalde beraren beste hiru ipui ere badakazki: LOHIEZKO BIDE ZAHARRA, IJITOAK, JESUS HAURRA JAIO DA.

Dionisio Amundarainek euskeratua eta herrikoitasunean anaia sentitzen duen Iñaki Zabala Sarria-ri eskainia dauka Martinek bere liburu hau.

Ezaguna da gure artean Martin Ugalde. Elkarrizketa argi asko azaldu zuen Z. ARGIAn Venezuelatik etorri berri hartan. Baina gure artean ez ezik ezaguna da Venezuela eta Hegoamarika osoan, Alemanian, Bretaina Haundian eta Frantzian.

Eguneroko baten zuzendari izana da Venezuelan. Kazetalaritzan ez ezik, ordea, ipuingintzan eta nobelagintzan ere artetsu eta argia da.

Maixu den batek eginak dira, beraz, ITSASOA UR-BAZTER LUZEA DA deituriko liburuan datozen nobela eta ipuinak.

Gerraren ekaitzak, Hegoamerikako ibiliak eta Euskal Herriaganako maitasunak hornitutako gizonak burututako liburua dugu oraingo hau.

Behin baino gehiagotan entzuna



dugu, lanetik leher eginik etxera heltzean irakurtzeko moduko libururik falta zaigula. Hona bat aukerakoa zenbait ordu-pasa atsegin eta probetxugarririk egin ahal izateko.

Ez dugu uste irakurleari damutuko zaionik liburu hau eskuratzeaz.

MARTIN UGALDE —ITSASOA UR-BAZTER LUZEA DA— GERO.

Irastortza

BERTSOLARI GAZTEEK

Otamendi, Ayakoa, Txapeldun Gabirian

Martxoaren amarrean, Gabiriako Osinalde Gizartean, bertsolari gazteen artean, Txapelketa bat jokatu zan.

Txapelketa onen elburua auxe zan: Bertsolari gazteei bideak irekitzen lagundu, bertsolari bezela, aurrera jo dezaten. Benetan asmo egokia eta txalogarria Osinaldekoek egin zutena. Nere ustez, Gizarte geiagok ere gauza berdiña egin behar lukete. Oso ongarri litzake.

Sei bertsolariri dei egin zitzaien. Auek ziran: Zeberio, Itxasondotarra; Mujika, Legorreta-koa; Begiristain, Ataun-darra; Otamendi, Ayakoa; Lau auek gipuzkoarrak. Gure probintziaz kanpokoak beste bi auek: Argiñarena, Errazkin-goa (nafarra) eta Areitio, Abadianokoa (bizkaitarra).

Gai emaillea, Migel Agirre, Gabiriakoa. Epailleak: Luzio Gabiria, Gabiriako semea gaur egun Zumarragan bizi dana eta Jesus Azurmendi, Idiazabalgoa.

Milla eratara probatu zituzten sei gazte auek. Ara: Ofiziotara; gaia emanda; puntutara; bertsoaren azken bi lerroak emanda zortziko nagusian bertsoa osa zezaten; baita, bertsoaren lau puntuak emanda, zortziko txikian, bertsoa osatzeko ere. Kaska ezurreko min ederra izango zuten sei bertsolariek lanok guztiok moldatzen! Beste era batean ere, probatu zituzten. Seiak gai berdiñean, bakarka abestuaz, besteak «kartzelan» zeudela.

Nere iritziz, bai gaiak, nola gai emaillea, ala bertsolariak eta zer esanik ez maaikoak, guztiz egokiak ziran. Jaso nere txalorik sutsuenak.

Leenbizikoarentzat bakarrik zegoen saria. Oso egoki pentsatua. Era ortan eginda zearo mozten baita bertsolarien artean sor liteken kikimakoa. Ni i baiño geiago nauk eta i ni baiño gutxiago aiz eta abar. Sekula santan ez degu ez da baidari indar emaille izan bear.

Saioa bukatu zanean, maaikoek bildurik erabaki au artu zuten: Zeberio eta Otamendi puntuazio berdiñean zeudela eta desempatea jokatu bear zutela gai berdiñean alkarren bertsoak entzun gabe. Au da: Bat bertsoa kantatzen ari zan bitartean, bestea «kartzelan» sartu zuten.

Beren lana bukatzean, erabakia au izan zan: Otamendi Txapeldun.

Sariak era ontan banatu ziran:

Otamendiri, Osinalde Gizartearen kopa.

Zeberiori, Osinalde Gizartearen plaka edo eskuerakutsi bat bertsorik onena bota zuelako.

Begiristaini, jai aldiko bertsolaririk gazteena zalako, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren kopa.

Beste gauza bat Gabirian asko gustatu zitzaigun auxen izan zan. Leenbizi Osinalde Gizartean lagun arteko afaria egin eta gero bertso txapelketa jokatu. Askotan ikusi degun gauza da plazan baiño bazkalondo edo afalondoan bertsoak milla aldiz obeak abesten dirala. Zergatik? Oso erraza da erantzuten. Lagun artean daudelako. Ta ez bestegaitik. Naiz —min gain gaiztoak asko daude— beste «orrek» mingaiñal pizten dituala esaten dutenak egon. Era ontan itzegiten dutenei beren itzak egundo ontzat ez ar.

Zorionak guztioi. Batez ere Osinaldetarrei eta Eusebio Igartzabal Gabiriako bertsolari jatorrari berere, dudarik ez izan, jai eratzailleen buru izango za da. Aurrera, mutillak!

IBAI-ERTZ

EGUNEROKO OGIA

MARTXOAK, 12

Lasaia. Lasaia izan nahi nuke nere iritzi eta lanetan. Bainan satorra, ezten zorrotza.

Behin gure herrian etika bat falta zela pentsatzen nuen. Egun berriz, herrian etika hori aurkitzen ez badugu kitoan garela. Mila era daude ongi jokatzekoak bainan bat bakarra gaizki jokatzekoa: Guziak bezala jokatzea. Bizitza, odol bakoitza, orijinala da. Eta hor konpon bakoitza bere hanka planoekin!

Zail da oso moral hori, edo etika hori zein den esatea. Eta zailtasuna orijinaltasunean datza. Behin kristal bat erori zen gure eskuetatik eta mila pusketetan sakabanatu zitzaigun. Nork osatu kristal-puska horiek zati orijinalean? Pikotara joan zitzaigun egia eta nork elkartu eta josi orain egiapuskak? Berritasuna erorbide da zenbaitetan. Beno, berritasun guzia da erorbide, orijinaltasunik ez duenean. Zenbat jende gure herrian berri den guzia eredutzat hartzen duena!

Dena den, lehena erabat puskatu eta egoera, gertakizun eta komun berriak eskeintzen dituztenak ez dakite ezer herriaz. Ez dute bere herririk maite. Zein zailagoa den herriaren giarrak aztertu ondoren eginikako aurrerabidea! Alegia, bizitza ez dela autopista bat.

MARTXOAK, 13

"Anaitasuna" aldizkarian irakurri dut: Haranburu-Altunaren nobelan berehala iragartzen omen da, Luisek ez duela hango zenbait esperientzi, bizi. Hau egia bada, eta ni ere hortan nago, nola esan lezake Armendariz-ek nobela ona denik? Sortutakoaren pita-hariak, prestidijitadorearen uxo izkutuak ikusten dira nabarmen eta agirian Haranburu-ren nobelan.

Eta berriro ere, gure herrian dagoen kritika sakon eta jator baten beharraz jabetzen gara holakoak irakurritakoan.

Barthes eta Goldmann irakurtze hutsak kritika sakon eta jatorraren karisma emanen balu... Ez ote zaigu isilune eta Loiolako kojuaren ejerzizio ugari falta?

MARTXOAK, 15

Gure buruhausteak filosofiako zenbait hitz euskeraz esan nahirik! Eta "consecuencia" esan nahi eta "ondorio" asmatu genuen.

Gazteluko Sarobe baserriko Antonio haserre zen bere semea azkarregi ibiltzen zelako auto berrian, eta honela esan zidan joan zen igandean:

—Uzta ederrik izango dik nere semeak halako batean bere presaka ibili behar hortan!

Mogelen gauza batzuk kritikatu nahi eta Mogel baztertzen dugun honetan badugu oraindik ere bere teorietatik ikasi beharreko gauzarik. Eta hau sinesten ez duenak badu nahiko uzta Gazteluko gertakizun bitxi honetan.

MOTZAILE

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTIETATIK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 29 65
DONOSTIA

ERAMAN - EKARRI radio AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IBILTARIAK ERRI GUZTIRAKO
Urrutizkiña: 421389 - 427726
Iparragirre, 8 - DONOSTIA

bazkari onaren zanpagarria eta txarraren estalgarria
LA CASA DEL CAFE
Juan Friondo
San Marzial 19 - Urrut. 41380
Donostia

MAI-ONA



SAGARDOA

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005



Eibar

Iruiñe



Pasaia

Aizarna

mutriku

BATZAR NAGUSIA

Illaren 2an izan zen GOIZEKO IZARRA ELKARTEAren urteroko Batzar Nagusia. Bertan argi eta garbi azaldu zituzten urtean zear izan diren gora-beera guziak. Gure Ikastolaren arazoak ziren garrantzi aundienarekin erabilli zirenak, bai antolaketa eta baita ekonomi aldetik ere. Ondoren liburu-agiriak irakurri, diru-kontuak aztertu, gazte sailleko lanak agertu eta abar.

Baita antzezlari, margolari, dantzari eta batez ere txistulariei buruz, erabaki sakonak artu ere. Ondoren elkarrizketa luzeak, baina atseginak.

Anaitasun beroan egin ere, bataren eta bestearen iritziak agertuaz. Azkenez leendakari eta batzorde berria aukeratzea, baina beranduegi izanik, urrengoko asterako utzi zen batzorde berria osatzea. Beraz batzorde berria nortzuk osatzen duten urrengoko astean aditzera emango dugu.

IÑAUTERIAK

Igaro ziren Iñauteriak, urrengo arte esanaz. Baita Auster-eguna ere, «autsa zera ta auts biurtuko zera» adieraziaz. Onekin batera Eleiz Liturji garai berri baten sartu gera. Garizuma. Otoitz, gogoeta, barkamen, penitentzi garaia.

Igaro ziren Iñauteriak
bapo jan eta edanaz,
auts eta utsa den gorputzari
atsegin denak emanaz.
Zine, soiñu ta naibeste jolas,
«dantza lekutara» gabaz,
oitura txarrak ontzat arturik
aazturik oitura onaz,
goizalde arte ustelkerian
V¡iva la juerga...! esanaz.

ANDONEGI

sunbilla

EUSKAL JAIALDIA

Otsailaren 18an izindu zan Sunbillan euskal jaialdi bat, elizarentzako dirua biltzeko.

Arratsaldeko zazpitan asi zan jaialdia. Leenbizi, Mattin eta Agirre bertsolariak asi ziran, bertso saio eder bat egiñaz. Gero, Intxitxu taldeak antzeztu zuen «ARALAR» izeneko obra. Jende asko joan zan eta oso pozik irten ziran.

Bai bertsolariekin eta bai antzerkiakin jendea gozatu zan eta dirua ere poliki atera zala entzun dugu. Beti ere, hori gehiago izango da elizako obrak ordaintzeko.

A.

bergara

FERNANDO AZKARGORTA HIL DA

Tximista bezala pasa zen herriaren alde batetik bestera Fernandoren eriotz berria. Gaixorik zebilen aspalditxoan, baina ez genuen uste hain azkar eta hain gazterik hilko zitzaigunik. Margolaritzan maixu eta ikasle, aita eta seme izan diren Bergarako bi margolariak hil dira gazterik: Simon Arrieta eta Fernando Azkargorta.

Maitea zen bere jaioterrian Fernando. Gizon ona, atsegina lagunartekoa, alai eta ameslari genuen. Martxoaren 16ean, Santa Marinako elizan, arratsaldeko zazpiretan egin zitzaion elizkizunean garbi ikusi zen jendeak maite zuela.

Baina ez du Bergarak bakarrik negar egin Fernandoren eriotzean, Gipuzkoa osoak eta margolarien munduak ere negar egin du.

Gizon bezala ez ezik margolaritzan ere oso ona bait zen Fernando. Ikusi berria dugu beronen esku artetsua oraindik orain Donostiako pintura-aqerketan. Are sona haundiagoa hartu du berriro Bilbaon «Galeria Windsor»en. Gorazarre haundiak egin zizkion bere lanari hortan diharduen jendeak.

Gure izadiaz, gure lurraz, gure lurkeraz eta gure herriaz maitemindurik zegoen. Inork baino hobeto agertzen zekien gure lurraren urdin-orlegiak. Esku finezko ukituz borobiltzen zituen bere lanak.

Gaurko margolaritzaren joeraz kezkaturik bizi zen. Ez zuen atzean gelditu nahi. Aurrera begiratzen zuen. Baina ez zen berrikeria batean ere jausten. Batez ere bere burua aurkitu nahi izaten zuen bere margo-lanetan.

Har beza Fernandok bere lagun baten azken agurra eta beza atseden pakean.

OXIRONDO

pasai donibane

KEZKAK

Azkeneko bolara hontan kezka eta ezinegon franko dugu herriko zenbait familiatan, izan ere, herrian ditugun bi lantegi indartsuenak larri dabiltza.

1) PYSBE-n, kaleratuak eta erretiratuak izango direla adierazi diete nagusiak, zenbait langileri. Eskutitzez edo kartaz ez bada, hitzez esan diete despedituak izango direla. Lantegiako ekonomia makaldua dagoelako, jauntxoek diotenez. Bakailo arrantzarako zituzten bapore guziak, saldu egin dituzte zorrak nolabait ordaintzeko.

"Gastos generales" delakoak arintzeko, kaleratuak eta erretiratuak izango omen dira langileok. Betiko lelo tristea!

Non arkitu behar ote dute lana 40 urtetik gorako langileek? Oso nekez noski arkitzekotan ere! Beste aldetik lantegi honetako langile asko, fabrikako etxeetan bizi dira maizter; izan ere amo ederrak izan dira etxe hauek!

Soldata txikia zelako, sartzen ziren langileak lantegiko etxe hoietan, sekulan ez irtetzeko. "Sekulan" diogu, soldata txikiak izan bai dituzte (eta dute noski) etxe baten jabe egin zitezen; eta jakina betiko jirabiran: lantegiko etxean sartzen ziren, jornala txikia zelako eta etxe bat ezin eros zezaketean soldata exkaxa zelako. Etxe hauek, langileei laguntzeko (?) eraiki omen zituzten. Ez ote zen izango sarea botatzeko eta esku-lana seguruago eukitzeko!

Dena dela, horra hor PYSBE-ko langileen egoera guztiz larria. Nola konponduko ote zaigu hauzi hau?

2) ASTILLEROS LUZURIAGAko langileek huelgan edo greban jarraitzen dute. Hilabete t'erdi daramate beraz. Batzuek sartzeko eskutiza edo karta jaso omen dute; baina, denak hartzen ez dituzten bitartean, ez omen dira laneratuko.

ANTZERKIA

Ikastolako batzorde edo direktibak antolaturik, datorren larunbatean (Martxoak 31) arratsaldeko 9etan, eta Parrokiako Zineman, Donostiako XARIBARI taldeak, "BATZAR NAGUSIA" deitzen den antzerkia edo teatroa agertuko du, baimen ofizialak lortuz gero jakina.

Hemen, bilduko den dirua, ikastolak dituen zorrak arintzeko, zuzendua izango da.

XARIBARI talde hau, hilabete gutxi barru, Donostiako Egia hauzoan, sortutakoa dugu. Antzezlari batzuk euskaldun berriak edo euskara ikasten ari direnak ditugu. Honek merezimendu behiago ematen dio talde jator horri.

Herri inguruetako antzerkizaleok!: Ea betetzen dugun herriko zinema lepezurreraino!!

NARANJO DE BULNES

Horrela behar du izan mendizaleak: Zarata edo propagandarik gabekoa. Aski dugu Tudela-rena!

Hantxe joan zitzaigun Martxoaren 11an, gure herrikide Felipe Uriarte haurtzaroko adiskide Tina. Eta ez zen gero txantxetan ibili!

"Naranjo de Bulnes" delako sortaldeko horma igo zuen, Angel Landa lagun zuelarik, gailurrean lo egin, jetxi eta... etxera.

"Tximist" taldeko bat dugu Felipe. Talde hau, datorren urtean, Everest mendi gailurrera igotzeko asmoz preparatzen ari zaigu.

Har beza Felipe adiskideak gure zorionik beroena!

ZUREKIN GAUDE Z. ARGIA

Gure asteroko honek 25.000 pezetako multa edo zigorra jaso duela, adierazi digu aurreko ale batean zuzendaritzak.

Z. ARGIA diruz gainezka ez dabilela eta ozta-ozta aurrera dijoakigula harpideei (suskritoreei) eta laguntzaileei eskerrak, agerian dagoen gauza da.

Orain berriz, zigor honek kalte dexente egingo dio zalantzarik gabe. Z. ARGIAk, zigorra hau nolabait konpontzeko, hauxe eskatzen digu irakurle: Harpide edo suskritore herriak egin edo diru-laguntza eskeini.

Aurrera Z. ARGIA etsi gabe!, zurekin gaude!!

INALURRETAK

Olabarri'tar Markos Aita Madakar-ko lurretan.

lemona

MADAGASKAR'etik LEMOA'ra

1. Euskaldunak, sarritan, mundu zabalera doaz, bai Ameriketa'ra, bai Australia'ra, bai nañora. Madagaskar'era be joan dira gure erritarrak. Ni be ara joan nintzan 1948'garren urtean. Argi esateko, mixiolari izan naz urrineko ugarte orretan, ze an Madagaskar'en gagoz Irukoiztarrak 1926'garren urtetik ona. Baña beste euskaldun batzuk be euki doaz lagun. Ez ori bakarrik; euskal jai bat be euki gindun, bai ipar aldekoak, bai ego aldeko euskaldunak. Ipar aldeko gizon argi bat izan zan Tananarive'n dagoan aeropuerto'ren zuzendari, eta euskal-oroigarri bat egin gura izan eban. Ori dala-ta frontoi eder bat egin eban. Inauguraziño egunerako zuzendu ebazan txistulari bi, baita bialdu andik 240 km.ra egazkin berezi bat eurak ekarteko Tananarive'ra. Eta olan euki gindun euskal jai eder bat Madagaskar'en.

2. Madagaskar ain urrin egon arren (13.000 km.), alegindu naz euskera ez aztuteko. Sarritan irakurri izan doaz euskal liburuak: "Euskal Idazleen Loratagia", "Gure Meza Deuna", "Goi-Argi", "Itun Zar eta Berria", "Ipuiñak", eta abar. Baita gure asteroko ederra dan Zeruko Argia. Neure ama ta senide guztiei beti euskeraz idazten izan doaz neure eskutitzak, baita eureri eskatu be eurenak beti olan egiteko. Uste dot olangoak bear dogula euskaldun guzgure izkuntza eder au gero ta biziago egon daiten.

Gauza bat ondo argi ikusi dot atzerrian, nañon: ZENBAT ETA URRINAGO JOAN MUNDU ZABALEAN, MAITEAGO TA ESTIMEDUAGO IKUSTEN DA GURE IZKUNTZA EDERRA, baita euskaldunak eurak be. Ori guk guztiok sarritan gogoratu bear genuke, eta emon euskerari bere etxean kanpoan daukon abegi ta maitasuna.

3. Esango dauztezue: Euskalerrira etorri zarenean, zelan ikusi dozu gure erri au? Egia esan bearbadot, gauza txalogarriak ikusi doaz. Lemoa'ko eleizan euskerea indartsu ta gogor dabil. Domeka baten meza nagusia esan dot, meza abestua, dana euskeraz: abeslariak koruan, erria bean, apaiza altaran, danok ao betean Jaungoikoa goresten gure izkuntza ederraz Ogei ta bost urte Madagaskar'en egon, eta gero olango meza baten parte artu, nire biotz euskaldun onerako gauza andia izan da, pozgarria. Pozez pozez ia negar egin dot...

Eta zer esan ikastolen ganera? Lemoa'n bertan ikusi dot ikastola bat, eta bertara poliki doaz neska-mutillok. Neure lagun batek esan daustan lez, gero ta ugariago doaz Euskalerrian zear ikastolak. Ederto dago ori. Ortxe dago gure euskeraren etorkizuna. Aurrera, beti aurrera! Guraso guztiei auxe esan gura nauzkio: bialdu ikastolara zuen seme-alabak, eta etxean beti euskeraz itzegin.

Etxean euskeraz itzegiteko diñot, baña obeto esango nuke KALEAN ITZEGITEKO. Ze, egia esateko, euskera gitxi entzuten dot kalean Madagaskar'etik natorren onek. Gauza ona litzake nañon Euskalerrian parra parra euskera entzutea: orraxeraño eldu bear geunke euskaldunok.

Besterik zer? Ikusten doten lez, iñoiz baño geiago argitaratzen da gaur egun: liburuak, albistak, eta abar. Ori be gauza txaligarria. Baña auxe eskatuko nauzkioe euskaldun guztiai: geitxoago irakurri bear geunke euskaldunok. Artu euskerazko liburutxo bat; artu olango albistaren bat, eta irakurri. Olantxe lan duko dogu gure izkuntza au; olantxe ezagutuko dogu obeto MUNDU ZABALEAN AIN MAITE DAN GURE EUSKEREA.

Euskaldunok, aurrera! Aurrera beti!

Olabarri'tar Markos

"badator udaberria"
TRESILLOAK.....oso merke
"1973rako berri berriak"
MOD. ITALIANO 15.375 pezeta edo hilean 630
MOD. SORRENTO 22.750 pezeta edo hilean 750
MOD. SORAYA 29.550 pezeta edo hilean 950
EZ DAUZKA BESTE INORK
AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA
MORAZA,3 eta 14an DONOSTIA
SAN MARZIAL,12an IRUN
ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE GIPUZKOAN ETA NAFARROAN
askoz ere merkeago eskura ordainduz

(c) Ministerio de Cultura 2005

berango

MUNARRIKOLANDA

Munarrikolanda mendi aundi bat ez da baiña bai Berangoko garaiena. Andik zer jazoten dan errian obeto ikusiko dodala uste dot. Orra or nire izenpearen aukera.

ERRIKO GAZTE BI

Erriko gazte biri buruz zertxo bat esan bear dot. Euren izenak Iñaki ta Mari Asun. Orra or gazte errizale zintzo bi. Ezpatadantzarien zuzendaria Iñaki. Gorulariena Mari Asun. Ezpatadantzari eta gorulari onek GURE-TXOKO taldekoak dira. Saio gogorrak egin ondoren, udabarrian asi eta urte betean ogeiren bat erritan Euskalerriko dantzak erakutsiegaz Berangoko izena eroaten dabe erriko neska-mutillak, Iñaki ta Mari Asunen ardurapean.

Orrezaz ganera erriaren eta euskal nortasunaren alde lan egiteko beti prest doguz.

Gure Iñaki, ganera, euskal abesdarien taldetxu baten zuzendaria da. ITXAROPENA bere izena. Igazko txapelketan sari politak lortu dituen taldetxu onek elizkizunetan abestuteko bere gertu dago.

GORA GAZTEGIA!

Gazteriaren aurka dabiltzanak bai dagoz. Euren eritxiz egiten daben gazteak ule eta bizar luze erabilli da, besterik ez. Ni ez naz gazte baiña gazteriaren alde nago. Akatsik ezaz ez dagoz, ez. Adiñekoak bere ez, ezta? Gazteak onbideak bere bai ditu eta batez be biotz aundi eta zabal bat. Ona emen adibide bat.

Gure erriko talde bi gazteen laguntasuna bear izan dabe. Euskaldantzariak leenengoz. Euskeraz ikasten dabiltzezan umeak, bigarrenez. Leenengoentzat GABONETAN eta bigarrenentzat AGATE DEUNAREN bezperan etxerik-etxe abestuten, eguraldi otzak izan arren, zazpi ordu baiño geiago bakoitzean egon ziren. Otz euren gorputzetan baiña biotz sutsu eta zabaletan poza.

Nire txapela kentzen dot esateko:

Gora Berangoko gazteak! Gora gazteria!

ZERUAN DAGOZ

Joan dan udan ikastolako mutiltxu bat, Rafael Iza Olarieta, zerura joan jakun. Oraintxe, egun batzuk dirala gure ikastolako beste neskatxu bat, Gema Ayo Fernandez, Aitagana joan jaku. Zergaitik, Jauna? Gizonontzat, galdera edo itauna oni erantzun egoki bat aurkitea gaitza da.

Atsekabean laguntzen dautsegu sendikide guztiei. Baiña, lagun maiteok, kristau gara eta «Gure Aita» otoitz egitean «...egin bedi zure naia zeruan bezela lurrean bere...» esaten dogula ez daigun aaztu.

Rafael, Gema, Aitaren ondoan gure ikastolaren laguntzailleak izan zaiteze.

MUNARRIKOLANDA

elgoibar

GURE HERRIAREN ETORKIZUNA

Elgoibarko Udaletxekko zuzendariek «Plan General de Ordenación Urbana» zaion herri eraketan sartuak dira aspaldidanik.

Eginkizun honek duan garrantziaz herritar gutxi konturatu dela uste dugu. Baliteke behar dan beste informazio ez dugula izan eta bestetik honelatsukok arazoetan, dena egina eman digute ia beti, herriaren iritziak haintzat hartu gabe, lozorrora bultza eraziaz.

Sar gaitezen baina arazo honen mamian: Udaletxeak aukeratutako tekiko taldeak bukatu zuanean Plan hau eta herri zuzendariak lehenbiziko on-iritzia eman ondoren, jarri zen leku agirian, nahi zutenak ikus eta nolakoa zen jakin zezaten, reklamazio edo kritika egiteko ateak irikiaz.

Irraileko larunbat bat aukeratu genuen ikustaldi hori egiteko. Azoka piazan eta agiriak jarritako planoak ikusi eta liburuak irakurteko arratsalde gehiena bertan igaro ondoren, gure iritzi apalak eta gutxi gora behera hauek dira:

1) ESKOLAK

a) *Parbuloak.*—Sail honetan prebisio eta eraketa, itxuran dagoela uste dugu.

b) *E.G.B.*—Gure herriko biztanle-gehitzea ikusita, alderdi honek ere nahiko eta ongi eratua ematen du. Zer esanik ez, prebisio hauek, Eskola Publikak edo Estaduarenak egiteko asmotan aukeratu direla. Baina badugu hortik kanpo umeen heziketa antolatzeko eskubidea eta eskola pribatu eta ikastolak egiteko reserba sailak beharrezkoak zaizkigu.

d) *Eskola Profesionala.*—Azalpen iluna besterik ez du egiten planak gai hontaz. Garrantzi handia duela Eskola honek herriarentzat eta benetan arduratu behar dugula eskatzen zaigu. Beste ezer ez digu esaten. Badakigu indar berritze eta zabalketa bat beharreko zaiola, baina, nork?

2) LUR-ALDE BERDE ETA PARKEAK.

Gai hontaz, oso eskas gaudela esaten digu Planak bainan ez estutzeko, gure herria luze eta estu danez bi alderdietan kanpo zabalak omen ditu. Ez ahal da txiste eskas bat hau? Parke txiki bat besterik ez dugu. Benetan urritasun handia ume eta nagusiak lasaitasun apur bat izateko. Behar beharreko zaigu ganorazko parkeak jartea.

3) DEBA IBAIA

Ubide eta ibiltoki: Ibai hontaz adierazten digutenez, udan ur gutti dijoalako eta bertara jaurtitzen diren zikinkeriak bide, kontaminazio arrisku haundia izaten duela, aro edo epoka hortan. Oria ibaiaren ondoren, pozoitsuena jotzen dute.

Egoera hortatik ateratzeko ubide edo kanalizazio bat egin behar omen da, Sigma lantegitik San Pedro fabrika pasatu arte. Ur zikin guziak bertatik eramanaz eta depuradore baten bitartez garbituaz. Kanal honek hiru metro zabal izango ditu eta etxen aldetik izango da eta Sigmatik Melitongora arte. Gain partea itxia izango luke eta paeo leku bezala eratuko litzake. Beharrezkoak ur-kanalizazio eta ibiltoki eder bat; nahiz eta hiru metrotakoa estutxoa iruditzen bazaigu ere.

4) SALEROSLE EDO KOMERZIAL ALDEA.

Hontarako leku bat besterik ez dute jarri. Arriaga aldean bera. Ikusten danez, autopistaren sarreran bertan dala-ta aurrera bidea zala uste izango zuten. Ez dugu ezer iritzi horren aurka bainan, herri barruan saltoki ugari izan arren ez dugu kategoriko komertziorik eta berriak jarteko lokalik ere ez. Halaz ere uste dugu, zerbait izentatu beharra zegoela hauetaz.

5) KIROL —OSASUN ETXE— IKASKETA NAGUSI ALDEA.

Albitxuri inguruan jarri dizkigute zerbitzu edo eginkizun hoientzako lekuak, une berdez apainduta. Leku alaia benetan. Akats bat ikusten diogu. Urruti xamar dagoela. Esate baterako, fuboleko kanpoa bertara aldatuaz, ez ahal da izango atzerakada handia batez ere oinezkoentzat?

6) INDUSTRIA ETA BIZITZA LEKUAK.

Garrantzi handiko puntuak badira ere, ez gara heltzen epai sakon eta zabal bat ematera. Esango duguna da, industri aldeak nahiko sail osatzen duela eta sailik handienak Sallobente eta Arriaga balleretan eta Olaso eta Metalgo aldean direla.

Bizitzak, egiteko leku handiena San Rokе aldean jarri da. Leku egokia ibilbide gehiago balitu, batez ere beheko parteakin, lasaitasun gehiagorekin joan etorriak egiteko.

7) KULTURA ETA ATSEGIN-ALAITASUN LEKUAK.

Ez dugu ikusi hortarako aukeratutako leku berezirik. Herri baten izaera eta bere biztanleena ez da bukatzen industria eta komerzio batzuk ogi-bide bezala eukita, beharrezko zaizkigu ikastetxeak, berdin Ikastolarentzat behar duen maiara heltzeko etxe bikain bat, legeak agintzen duen neurritan sartuko dena. Baita kultura eta alaitasun leku berezi bat ere, bai gazte eta berdin nagusientzat.

BESTE PUNTU BATZUK

Beren garrantzia izan arren, kale, saneamendu, ur-reserba eta abar, tekniku eta jakintsuentzat uzten ditugu.

Hala ere, ezin ahatz dezakegu, ikusten den herri haziketarentzat jarri diren kaleak eta igaro bideak gutti direla eta iruditzen zaigu, gerora herri funtzionamendua zaildu eta txartu egingo dela.

Beharrezko zaizkigun lasaitasun eta kirol leku batzuen ekintzei, elkarte pribatuak heldu beharko liekete, baina, frontoi bikain bat eta parke on bat egitea Udaletxeak hartu behar du bere esku eta zenbat eta bizkorrago, hobe guzionzat.

Azkenik, herri agintariei eskatzen diegu, azken-erabakia hartu aurretik Plan honek duan garratzia jakinik, gero zein zaila izaten dan oker hartutako bideak zuzentzea. Arretaz begira dezatela, iturri batera baino gehiagotara joan ditezela ahoklu bila eta beren iritziak kontuan eukiaz. behar diren ahaleginak egin ondoren har ditzatela erabaki horiek. Egibeharrak ahal dan ondoen betetzeak ematen duen barru-lasaitasunarekin.

S. Osoro ta Etxe-Pek

soraluze

SORALUZEKO GAZTERIA

Beste herri askok duten bezela, Centro Parroquial deitzen zaion elkartea osatzea pentsatu dugu herriko gazteok.

Asmo horrekin orain dela urtebete "junta provisional" bat sortu zen, herrian diren lagun taldeen ordezkariak batuaz "Soraluzeko Gaztedia" zabal dedin baditugu behar diren baimenak, baina orain barruko regimen baten beharrean arkitzen gara ta konponketak amaituz doaz. Hori lortzeko diru askoren beharrean arkitzen giñen eta hortarako jaialdi batzuk antolatu genituen, batez ere gau-dantzak, ta herriaren aldetik, bereziki gazteriaren aldetik, oso erantzun ona jaso genduen.

"Soraluzeko Gaztedia" zabaltzen denean herri zehatzagoak emango dizkizuegu.

SORALUZEKO AZKUNA EDO SOZIEDADEA

Otsailaren ogeita lauean Soraluzeko kirol bazkunekoek urteroko batzarra euki zuten, batzar horretara bazkide gutti joan zen eta lehendakaria hori dela eta ez dela oso haserre zegoen, eta gure ustez arrazoi asko zuen Laserre egoteko. izan ere bazkide askok uste dute hilerokoa ordaindu ezkero dena eginda dagoela.

Esan leiteke 1972 garrengo urtearen amaiera ta urte honen hasiera gauza gehien egin dituzten urteak izan direla. Egin diren gauzen artean hauek dute garrantzi handiena:

Lehenbizi Erretore Jaunari eta "Junta Parroquial'ari" esker biltokia lortzea izan zen.

Abenduaren zortzian (Sortzez garbiaren egunean) Arrate-Alfa ekiñaldiakin balonmanoko kanpoa inauguratu-ta gelditu zen, eta gainera balonmanoko talde bat ateratzeko asmotan dira.

Urtarri'aren ogeita zazpian larunbat arratsaldean, lehenengo aldiz "ciclo cross" lehiaketa bat antolatzen zela. Antolatzaile eta jendaren aldetik arrakasta haundia euki zuen eta datorren urtean berriz egiteko asmotan dira. Gauza hauek lortzeko hileroko ordaintza igo egin dute ogerleko batetik bi ogerlekora.

Aurten berriz helburu hauk dituzte: mendirako tresnak erostea. Udaletxearen edo Ayuntamentuaren diru laguntzaz gimnasio bat egitea. eta gero orain arte egin diren lehiaketekin aurrera jarraitzea. Asmo auek betetzeko bazkideei eta bazkide ez direnei laguntza eskatzen zaie.

SORALUZEKO GAZTE TALDETXO BAT

getxo

Itxas-Ganeko Kultur-taldeak, bere egitarauari jarraituz, hiru txapelketa antolatu ditu. Hona hemen diranak:

Lehenengoa "I Ume Pintura Erakusketa". Maila bi izango ditu, 8 urte arterainokoak (1965ean jaioak) eta 9 urtetatik (1964ean jaioak) 13 urte arte. Erakusketa hau Martxoaren 17tik 25era Arriluzeko arrantzaleen etxean ospatuko da Bertoko Margolarien Lehen Erakusketarekin batera.

Bigarren sariketa "I Mendi Argazki Txapelketa". Honetan ere bi maila izango dira, 16 urte arterainookak eta hortik aurrerakoak. Txapelketa hau Getxoko Zine-Fotografialari Taldearen laguntzaz eraturik dago.

Eta azkeneko sariketa "I Ume Erredazio Txapelketa" dogu. Honen oinarri jakingarrienak ekartzeari interesgarri iritzi deutsogu, hona bada:

—Txapelketa honetan euskaraz nahiz erdaraz parte har daiteke.

—Lanak Apirilaren 28a baino lehen bidali beharko dira.

—Urteen arauera bi maila izango dira, 8 urte arterainokoak (1965ean jaioak) eta 13 urte arterainookoak (1960an jaioak).

Norbaitek jakin gura badau barri gehiago Itxas-Gane-ra idatz daike; zuzenbidea: Caridad, 3 Algorta.

Egitarau ederra, batez ere umeentzako txapelketa biak, Algortako jendetzaren bereiztasunik garrantzienetako bat ume ugaritasuna izanik ere, heurentzat oso egintza gitxi egiten bait da, horregatik umeen aldeko egin dadin guztia oso garrantzizkoa eta are gehiago beharrezkoa izango da, Ikastolako umeengan pentsatzen badogu prolema hau larriago jaku; ikus zer giro daben ikastolatik kanpo.

—oOo—

Aurreko kronikan esaten genduanez, Algortako ikastolak euskaraz eta euskaldun guztientzako hitzaldi saio bat antolatzeko asmoa eban. Odain atseginez esan daikegu ideia hori bete egin dala. Lehen hitzaldia hil honen 9an ospatu zan, gaia Euskara Batua izan genduan eta hizlaria Xabier Mendiguren.

Oraindik ikastolak iragarritako hitzaldiak honeek dira:

Errioxako Euskaltasuna (E. Gerrikagoitia).

Euskal Prehistoria (X. Mendiguren).

Euskal Iparraldea (E. Gerrikagoitia).

Ostiralero (barikuero) arratsaldeko 7,30 etan Bidebarriko ikastolan.

Zoritxarrez lhen hitzaldi horretara. oso interesgarria izan arren, jende gitxi joan zan. Hala ta guztiz. hurrengoetara jende gehiago joango dalakoan gagoz.

—oOo—

Bizkaiko Institutoetan erlijiozko klaserik gabe.

Orain dala egun batzu Bizkaiko Institutoetako erlijiozko irakasleek beren klaseei huts egitea erabaki eben. erabaki hau izpirituzko zuzendariekin batera hartu zan eta Gotzainak beretzat egin eban. Ikasleen gurasoei bidali eutseen kartan azaltzen dabenez, Bizkaian. ez beste probintzietan. erlijio hezibidearen emaile guztiei "Juramento de dhesión y Acatamiento a los Principios del Movimiento Nacional y demás Leyes Fundamentales del Reino" dalakoa egiteko eskatzen jaken "Ministerio de Educación" dalakoarekin kontratuak egin ahal izateko eta eskari honi bidezkoa ez zeritzatenez gero, jarrera hori hartu eben.

Irakurleak Mintzo

BATASUNA

Batasuna dela eta ez dela, azken bolada honetan, bederen, asko edo gehiegi mintzatu da, behar bada, gure artean. Euskal-Herria bere buruaren jabe izatera inoiz heltzen bada, mugaz bi aldetakoak baturik izango da baina; zertan ote datza zorioneko batasun hori? Nola gaitezke benetan batu ez alde batetakook ez bestekook elkar ezagutzen ez dugunean?

Dena dela, eta besterik ez bada pozez eta hanka sartzeko batere beldurrik gabe gainera, euskara batuaren edo baturakoaren azala eta mamia bera piskana-piskana egosten ari zaigula, esan dezakegu.

Euskara dugu euskaldunontzako batasun guztien (erakundeen, eta era guztietako elkarteen) oinarria. Ez ordea, batu beharrean gero eta gehiago urruntzen ari gaituen euskara. Salba gaitezen, euskara batua behar dugu lehen bait lehen.

Euskara batu hori barreiatu eta hedatu beharko dugu, eta nola ez, batasun hori sendotzeko eta benetako batasuna izan dadin, aldez aurretik, euskal gizakiok ezagutzen joan beharko genduke.

Zer egin?

Bide egokia litzake, esate batetarako, bai alde batetako eta besteko irratiek irratsaioak elkarrik eratuko balituzkete. Euskaltzaindiak eta dantzarien elkarteak egin duten antzean, nahiz Ipar nahiz Hegoa aldetako semealabak babestuz. Baina nola gaindituko dute mitoz beterik dadukagun Bidasoako muga zitala, bakoitza bere aldean baturik ez badago? Non ditugu, zertan daude oraindik euskal eliza egin behar dutenak, berri-emaileak, industria-langileak, baserritarrak, sendagileak, eta abar, eta abarrak? Noizko hauen batasuna? Guztiok, ez ahal dute batasunaren beharrik?

Batasuna gogoz eta benetan nahi badugu, ez pentsa gero, goitik behera etorriko zaigunik. Batasuna geuk, guztiok behetik gora egin behar dugun gauza da.

Nahiz eguzkiaren argitan nahiz ilargiaren argi-kaxkarpean, edo-ta ilargirik gabeko gauaren ilunpetan lanean ari diren elkarte. talde eta erakundeen benetako laguntzaz eta egintzez, ez alferrikako ele eta hitz ahulez.

Beno lan berauxe ere, alferikarako hitz mordo izango delakoan lenez. Baina, faborez, iar gaitezen guztiok lanean lehen bait lehen!!!

AINGERUK

AMABOST URTETATIK GORAKO neska gaztetxo bat behar da. Donostian, «residentzi» batean bizitzeko egun-erdiko lanaren truke. Beste egun erdia berak nahi duena ikasteko libre izango du. Deitu 410054-417118 urrutizkiñetara.

BOUTIQUE
Grekane
Gazteen, neska - mutilen, Boutique
31 agosto, 5 Urrutizkiña: 41 18 75
— DONOSTIA —

(c) Ministerio de Cultura 2005

BERMEOTIK

UME ZURTZ DAGO ARRANTZALEA

Dakigunez, Bizkai eta Kantauri kolkotik itxas baztarrera, ez dogu entzun iñoz laguntza andirik izan dabenik itxas gizonak arrantza arazoetako ezta arrain toki edo kalak zaintzeko ere. Eta gaur ere, ori ikusi eta entzuten dogu itzakaz, ekintzakaz baño geiago. Onetara itxas errietako arrantza langilleak, milla eskari eta ezerezko opariakaz idunerarte beteta dagoz.

Gomutan dogu, gure gazte aroan, Bizkai-ko Aldundiak gura ebana egin, bere laguntzagaz, amu arrantzalearen alde; lebatz eta besigu zaleari. Eta laguntza ori aurrera eruateko, gertu egoan burdin adarrez beteriko karebaltzezko arri-mordo edo bloke andi batzuk osotu eta iaurtitzeko arrain kalatan. Onetara sare-narrez edo arrastran ibilten ziran arrantzaleak, arrain kalatatik, urrundu dagizan eta olan amu zaleak aldeztu.

Arraiñ edo kala iagolerik etzan ikusten iñondik: eta lebatz ta besigu zaleak ez ebien laguntzarik itxasoan.

Keskaz eta asarre aurkeztuten ziran itxas agintariagana euron itxas gora-berak agertzen. Geroko geratzen ziran atontze gustiak: Geroko. Eta noiz oraingo?

Gaurko egunetan ere, olakorik asko ikusten da beste mota batzuetako arrantza arazoetan. Esate baterako; Laburdiko itxas baztarrean dogun antxoa burruketan. Iñoren laguntza barik: ume zurtz.

Leengo zaarrari entzuten geuntzon baten baño sarriago, itxas arazoak atontzeko Madrid-eko portu-erri ori urrunegi dagoela. Eta egia. Kantauri itxaso, eta bai beste era batzuetako garrantzidun arraintza atontzeak, emendik izan bear litzakela obeki.

Aspaldiko egunotan ere, batzartuta ibilli ziran Galizia aldetik Gipuzkoaarteko anaidi edo kofradietako lendakari gustiak, euron ogi bide eta itxas ibilkerak zelan eratu; aztertu; eta geiago bear diran garrantzidun gauzak eruateko bide onera. Bai zera! Bear ba-da euron artean izan leiteke zerbait egitea. Baiño itxas barruko arrantzaleakaz, gatx egoala atontzerik egiten ez lortzen. Eta arrantzaleak esaten dabe: zer egin? Itza da ugari: lan bearrezkoak gutxi: Ori da gure betiko leloa. Zarata nazkagarri.

Bayona-tik Kastro-ra, euskotarren itxasoa da. Bidasoa ibaitik ipar aldera. Adur ibaia arte, gure anaiak dira. Zelan ez aditu arek eta gu izketan?

Arrain eta kala iagolak! Ontzi oneik barriak ei-dagoz egiten. Nor iagoteko? Leendik ere ezagunak ziran onen antzeko edo izeneko bazter iagolak. Dakigunez, iagole oneik, mirari askorik ez ebien iñori egin. Eta orain sortzen dagozien lanchas rápidas deritxoen burdin ontziak ere, zer egingo ete dabe? Naiago neuke erreko ba-nitz, eta iagole oneik mesede ugariak arrantzale guztiari egin. Ikusiko dogu. Aldia lakorik ez dago zinisteko, eta bai bakotxari bere arrazoia emoteko ere.

Itxas langillearen bizitza amu arrain, antxoa, egaluze eta beste urazaleko sare arraintzarako ere, gero eta mietzago, urriago eta latzago agertuten da.

Ontzi andi, eta barri geiegi, sortu edo egiten dira aspaldiko urteetan. Baiño arraina, beti lez, geiagorik ez dogu ikusten porturatzen. Eta gainera bere koxukerak, gero eta askoz be, urrunago izaten dira. Eta alagor ona gure dabenak etxeratu, asauetako arrain lekuetara joan bear dau, bai egaluzetan, bokartetan, eta zergaitik ez, lebatz eta bisigutan ere. Ostantzean zer? Bietz arria jo.

Afrika eta "Frantzi" aldeko itxaso areik, euron iaubeak daukoe; eta ganera eurena dana, ondo zainduten dakiena. Nora goaz onetara?

Gure itxas agintariak, isillik dagoziela, Frantzia aldeko arrantza agintariak, kezkaz eta zurbil dabiltza, itxasoetara mendi-errekatatik duazen urnastau eta edentsuagaitik. Bai ta-be, Bizkaiko kolkoan, holandar eta belgika-tarrak, itxasora jaurti ebazan atomo ondakiñagaitik ere. Ontzat artzeko gauza garrantzitsuak benetan arraintzaleantzako. Eta gure itxas agintariak zer? Españar jakitun batek, izparringi bidez, ez eutsan ardura andirik emoten atomo ondakiñ oneri. Biar ba-da, frantziarrak jakintza gitxiagokoak izango ziran, eta españarra, jakitunegia ur-nastauetako gauzetan. Neretzako bietatik bat, ez da egizalea. Bentzat oraiñarteko arraintza ugaririk, ez da koxuten ez ondoan ez azalean. Zergaitik?

Bayona-tik Kastro-rarte, errekarik asko dagoz gure lurraldean. Eta erreka onetatik, ur-gardenalez, ur-ustelik asko doaz kantauri itxasora. Ez ete dau ur onek kalterik egiten?

Gizasemea, bere osasun eta bizitzaren billa, edonora dua. Arraiñak ez ete dau egiten beste orren beste?

Arraiñak beti izan ditu arerio andiak: eta gaurko egunetan ere, ikusten gagoz, zelan geitu diran beste arerio batzuk bere aurrean eta atzean.

Lebatza: bisigua: antxoa: egaluze ta laburra... arraiñ gozoak jateko baiño oso gatxak koxu ta porturatuteko.

Itxas lanaren bizitza eta irabazitza, geroago eta latzago agertzen da. Ume zurtz dago arrantzalea. Noiz arte?

JULEN URKIDI

Itsas gizonak laguntza aundirik izan dabenik ez dogu iñoiz entzun...



TXIMIST - INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD
LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA
Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO - INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX - ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Lantegi ta landolak:
Jolastokieta (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351869
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Eulojio Serdan, 18. Urrut. 220935-38
VITORIA

NORK KUKURRUKU¡¡¡¿¿¿

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

FAGOR

sukaldian

zure etxea
USURBILEN
sarrera
50.000 pezetan
ordainketarako
erreztasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokiena aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.°
- Ikus maketak aurreski kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.

CSG CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIAN
C. A. P. n.° 106.527|3

ESTABLECIMIENTOS ayestaran DONOSTIA
FERRETERIA
BURNI - SALGAIAK
Urbieta, 25
ELECTRODOMESTICOS
ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK
Urbieta, 27 - Isabel II, 2
RAILITE
LEGEZKO ZABALTXAILLEA
Aldapeta, 4
Urrutizkiñak:
44300 ta 426787

(c) Ministerio de Cultura 2005

ELIZAREN BERRI

"TRADUTTORE TRADITORE": KASU NABARMEN BAT

Aurtengo Garizumarako, dei bat zuzendu digute gipuzkoar kristauoi Donostiako bi gotzaiek. Euskara-erderatan zuzendu ere. Eta ugari zabalduaz jenderen artean. Ez diot ekingo hemen txosten horren mamia emateari beraz. Baina, hauxe agertu nahi nuke: dei hori eskuratu orduko, legezkoa zenez, euskarazkoari heldu diodala, baina zoritxarrez erderazkoara jo beharrean gertatu naizela: hain adierazpen bitxiak iruditzen zitzaizkidan euskaraz emanak! Eta erderazkoarekin gonbaratzean apurtxo bat lasaitu naiz. Baina, nere galdera hau da: nolaz eman daiteke argitara halako itzulpen narratxik (izan ere, zoritxarrez euskarazko testoa itzulpena izaki), batez ere aldamenean jatorrizkoa ematen delarik?

Baina, ene baieztapen hori googrtxotzat irakurleak eman ez dezan, hona non finkatzen dudan nere iritzia. Testoa hain hedatua delarik, jo beza hartara irakurleak. Hemen aipatzen ditudan orrialdeak eta parrafoak, aipaturiko "Garizuma. Gotzaien deia 1973" txostenekoak dira. Euskarazkoa eta gaztelerakoa ezker-eskui emanak dira; horrez gero, bi orrialde ematen ditut testo bakoitzarentzat.

1-2 or. 3, par. "Orregatik, bere bizitza **txukundu** eta bere sinismenana sakondu nai duanak...".

"Como en otras ocasiones, el hombre que quiere **personalizar** su propia vida y el cristiano que quiere ahondar su fe...".

Ez dut uste "txukundu" eta "personalizar" gauza bera direnik, urrundik ere. Are gutxiago onar daiteke itzulpen hori, "Dei" guztia gizakia norberago izateaz mintzo delarik. Dena den, "nork bere bizitza pertsonalizatu" edo "nork bere bizitzan nor bezala jokatu", "txukundu" baino esanahi aberatsagotzat eta betegarriagotzat jotzen ditut.

1-2 or., 5 par. "Geren buruarentzako askatasunik aundiena iritxiaz, egia obeto ezagutu-ta, geren bizien jabeago izan gaitezen".

"...un tiempo en el que podemos hacernos **más** libres, porque hemos sabido encontrarnos con nosotros mismos para vivir más en la verdad".

Baldintza eta baldintzapetua aldatu egin dira, bata bestearen orde emanaz. Erderazkoan honela: geure burua askeago egin ahal badugu, geure burua aurkitzen jakin dugulako da. Euskarazkoan alderantziz: askatasuna iritsiaz eginen gara geure buruaren jabeago.

3-4 or., 2 par. **"Individual y comunitaria" bi-kotea ez da euskaraz ematen. Gauza bera gertatu da 2. orrian ere (5.par.). Pentsamenduaren aldetik, horrek bere joan-etorria baduela edonork daki; eta "Dei" honetan azpimarratzen den alderdia da. Halere 3-4 orrietako 3. parrafoan, "oración personal y comunitaria" euskaraz ere ematen da: "bakarka eta saillean otoitz eginaz"; hor ere, ordea, esanen nuke, sailean orde elkartean hobetoago izanen litzakeela. Sail hitzak elkarteak bezalako egiturarik ez du, bada, adierazten.**

3-4 or. 4 par. **"Reconstruir** la propia existencia, en la totalidad de sus relaciones individuales y comunitarias...".

"Ortaz, auxe izango litzake gure eginkizunik behar-rena: Geren buruak eta lagun-urkoarekiko artu-emanak **txukundu".**

Berriro ere "txukundu" "reconstruir" euskaratzeko.

3-4 or. 5 par. **Euskarazkoan, baieztapena ez da arrazointzen. Eta gaur egun (noiz ez?) arrazointze horrek bere garrantzia baduela nork uka?**

5-6 or. Tituloa: "Nuestras **incoherencias y contradicciones".**

"Gure erruak eta utsuneak".

Inondik ere, erderazko konzeptu horiek "mordoilozaleek" eginen luketen bezala ez dira eman nahi euskaraz; baina, hori mamiaren bizkar egiten da. Horra aurrerapena!

5-6 or. 6 par. "Escuchar la voz del hombre...".

"Bai! Gizarteko **negarrak** entzun ditzagun...".

"La voz del hombre" "negarra" baino gehixeago ere badelakoan dago.

7-8 or. 3 par. **Euskarazkoari erderazkoaren giharra arras falta zaio.**

7-8 **or. 4 par.** "No se puede pretender hacer vida humana sin un proyecto para esa vida".

"Ezin leike gizon izan, gizon bezala jokatu gabe".

Euskarazkoari, tautologia edo, deritzat. Dena den, erderazkoa ez du euskaratzen.

7-8 or. 6 par. **Berriro ere, parrafo honek (erderazkoak) ezartzen duen bikoiztasuna (politiko-sozial harremanetan pertsonari ezagutzen zaion garrantzia eta nork bere kontzientziari ezagutu behar liokeena) ez da agertzen euskarazkoan. Halere, badirudi, gotzaien txosten honek, nork bere kontzientzia jokuan ipintzearen premia azpimarratu nahi izan duela.**

9-10 **or. 4 par.** "No podemos ignorar que son muy fuertes los condicionamientos ambientales y sociales...".

"...egia da baita gizarte-giro usteletan bizi gerala ere".

Euskarazkoan, erderazkoan ez bezalako ikuspegi pesimista ageri da. Ez du, bederen, erderazko konzeptua euskaratzen.

9-10 or. 5 par. **Erderazkoak, gaurko pertsonaren baitan balizko printzipio bezala ematen duena, gertaera soiltzat ematen du euskarazkoan. Bada alderdirik.**

11-12 or. 4 par. **Txosten guztian zehar, euskarazkoan, modaz igarotako ñaño kutsua nabari da. Ikus parrafo honetan: "Ez al da ori negargarria?". Aldiz, ez da euskaratzen erderazkoari halako ukitu mardula damaion adierazpen hau: "hay aquí un quiebra de humanidad".**

13-14 **or. 4 par.** "Medio social".

"Aldameneko gizarte-giroa".

Noiztik da pertsona batentzat "aldemeneko" arazo, gizartea?

13-14 **or. 4 par.** "Sin excluir la utilización de medios violentos que la conciencia ética y cristiana no pueden aceptar".

"Eta ortarako, indarkeria ta odol-ixurtzea ere libre direla, ala komeni ezkero. Nungo kristau-legean ikasi ote dute ori?"

Itzulpena baino parafrasis itxura gehiago da horretan.

13-14 or. 6 par. **Euskarazkoak moralkeriazko kutsua ematen dio testoari. Erderazkoak, "necesaria referencia a la ordenación de la sociedad" dioenean, euskarazkoak "gure ingurua ongu gabe" dio.**

15-16 **or.** "Las incomprensiones generacionales hacen más difícil el cumplimiento de sus funciones".

"Gaurko gazteen ezin-konprendituak ere, naiko kalte berekin du".

Zer esan nahi ote du euskarazko esaldi horrek? Ni bederen ez nintzen jabetuko, erderazkoa aldamenean izan ez banu.

15-16 **or. 1 par.** "Se hace necesario **revisar** las instituciones educativas, públicas y privadas".

"Eskolak, bai erriarena bai besteak, ongi eratu bearra daukagu".

Alde batetik, "revisar" eta "eratu"; euskarazkoak hau ematen du: orain arte ez dagoela ezer eraturik. Bestalde, "eskolak, bai erriarenak, bai besteak" delako adierazpenak ez du itzultzen erderazkoa ("públicas y privadas"); berriro ere, "mordoilokeriari" uko egin nahi, nonbait, baina mamiaren bizkar.

——oOo——

Horrenbestez, aski froga badela derizkiot hasierako ene baieztapenaren alde. Bukatzeko, irakurleak axola gehixeago merezi duela derizkiot.

ALDERDI POLITIKO KATOLIKORIK EZ

Saigon-go (Hego Vietnam-go) artzapezpikuak eskuarki ez du politika arazoetan parte hartu nahi izaten, agerian bederen. Oraingoan, ordea, Martxoaren 4ean, partidu politiko bat sortzearen kontra mintzatu da. Saigon-go katoliko guztiei zuzenduriko ageri batetan, honela dio: "gure herriaren historiagune honetan kristau elkartea, honen herritar eginpidea betetzeari buruz, gidatzekotan, Elizak partidu politiko guztien gainetik jardun behar luke".

Katolikoei partidu politikoan sartzeko eskubidea ezagutzen dielarik ere, honela dio: halako partidu horrek "Eliza ez dezake lotu; berebat, Eliza ez daiteke halako partiduaren ekintzaren erresponsable gerta".

Ondoren, oraindik orain hiru talde katolikoek egin duten batasuna gaitzetsiaz, hau esaten du: "Katoliko guztiak partidu batetan elkartzeak ez dakarke inolako mesederik, zeren ez bait daitezke lor amesten diren ondorioak".

Eta honela erasten du: halako partidua sortzeak" oposizioa eta dudak sortuko ditu herrian, eta katolikoak bereizi eginen ditu gainerako herritar talde handietarik, eta hori ez dezake onar katolikoak".

AMUNSA

ELIZA SALBAZIO BIDE (II)

Aurreko artikuluan Eliza sakramentu bezala dela salbazio bide genion. Jesusen salbazio ekintzaren eta salbazio honen benetako azkenburutzearen arteko garaian du Elizak bere egitekoa. Egiteko hau (lehen, sakramentu denez betetzen du Elizak. Azter dezagun gaurko hontan —laburki bada ere— zertan datzan hori.

Hortarako, gogora dezagun lehen-lehenik, Eliza ez dela salbazioaren jabe, zerbitzari baizik. Eliza ez da berez salbazioa, honen sakramentua baizik. Sakramentuaren definizio klasikoa hau da: ikus ez daitekeen errealitate baten ageriko zantzua. Gure kasoan beraz, ikus ezin daitekeen errealitatea Jesusek buruturiko salbazio ekintza da, eta errealitate honen ageriko zantzua Eliza. Bainan zantzu hau ez da edonolako zantzu bat. Sakramentuan zantzuaren bitartez irudikatzen dena nolabait *gertatu egiten bait da.* (Nolabait: *honi buruz iritzi ezberdinak posible dira. Horregatik jartzen dugu gaur* nolabait. *Beste egunen batean helduko diogu gai honi berriz). Horrek zera esan nahi du: Elizan, Eliza Jesusen salbazioaren zantzu denez, Jesusen salbazio hori gertatu egiten dela. Horregatik esan daiteke gizonek Elizan aurkitzen dutela salbazioa, ez Eliza gure salbazioa delako, baizik eta Jesusek gutako bakoitza zuzenean salbatu ez gaitzakeanez —Jesus gu baino bi mila urte lehenago bizi izan bait zen— Elizaren bitartez iristen zaigu salbazio hori. Hau hobeto ulertzeko, pundu batzuek aipa ditzagun.*

1) Gaur egun ohizkoa bihurtu da galdera hau: «Eliza zertarako, sakramentuak zertarako. Galdera honen sustraian aurkitu daitekeen iritzia berriz hau da: nik sinesmenik baldin badut, eta Jainkoarekin harremanean jarri nahi baldin badut, bitartekoren, ordezkoren beharrik ez daukat. Zertarako bitatekotza guztiak? Jainkoaekin harremanean jartzeko lagundu beharrean, oztopo besterik ez dira, zerbait ikus edo sume arazi beharrean ezkutatu besterik ez dute egiten». Iritzi honek badu arrazoirik eta oinarririk. Jadanik esana dago, printzipioz, Jesus dela gizonarentzako bitarteko, ordezko bakarra. Bestetik berriz Eliza katolikoak mila eratara eta askotan itxuragabe gehitu ditu bitartekotzak, kristau xehearen sinesmena Jainko-ordezko ugariz bete eta zamaturik. Bainan iritzi honek bere arriskuak ere baditu. Batez ere bat: gizonaren gorputztasuna, gizonaren mugatasuna ahazten du. Gizona eta gizonaren mundua nahitaez gorputzdunak izanik, gizonak bere baitatik irteteko eta beste norbaitekin harremanean jartzeko gorputztasuna beste biderik ez du. Ezin ahatz dezakegu hori. Eta nahitaezkotasun horrek erlijio mailan ere balio du. Horregatik dira beharrezkoak bitartekotzak, horregatik behar da, adibidez, bitarteko bat Jesusen eta gu bakoitzaren artean.

1) Eliza elkarte bezala ulertu behar dela esan genduan aurrekoan. Elkarte horretako kide berriz, Jesusen sinesmenean kide bilakatzen den guztia bihurtzen da. Horrela elkartea da salbazioaren eramaile eta salbazioaren sakramentu, eta elkartekideak berak osatzen duen elkarte horretatik hartuz du salbazioa, elkartekide ez diren guztientzat elkarte horren barruan Jesusen salbazioaren zantzu izanik. Elkarte horren, Elizaren sakramentutasuna Hitzean eta Sakramentuetan burutzen da. Hitzaren bitartez bilakatzen gara sinesle eta sinesmenak damaigu salbazioa giza bizizaren une, gertaera eta barne-behar garrantzitsuenetan adierazi eta betetzen da (sakramentuak). Funtsean Jesus da benetako sakramentu bakarra, salbazioa bera bakarrik delako. Honen ordezkari den neurrian da Eliza ere sakramentu eta gainontzeko sakramentuak eta Hitza seakramentutasun honen adierazpen konkretoak besterik ez dira.

3) Esadakoetatik ondoren batzuk atera ditzakegu: batetik Eliza Jesusen salbazioaren eramaile da ez Instituzio edo zera abstrakto bat litzakeanez, sinestunak osatzen duten elkarte denez baizik. Horregatik sakramentuak ez dira apaizak gainontzkeo kristauentzat egin dezakean zerbait arrigari bat, sinestun bakoitzaren erantzukizun eta egiteko baizik, elkartearen barruan, noski. Bestetik, salbazioa bakarra da, Jesus, eta honen sinesmenean gara salbatuak. Oinarrizko sakramentua beraz, Jesus da, eta gainontzeko sakramentuak funtsezko errealitate bakar honen adierazpen konkretoak, mugatuak, gizon mugatuarentzako. Honek zera esan nahi du: urteetan zehar Eliza katolikoan osatuz eta pilatuz joan diren ohitura, pratika, rito eta beste horrelako zenbait gauzak errealitate bakar honen izenean dutela sentidurik, eta askotan errealitate hori ahaztuarazi eta izkutatu besterik ez dutela egiten. Agian guztiz beharrezkoa litzake maila hontan garbiketa bat egitea, garrantzizkoa dena bere indarrean ager dadin. Hortaz gainera, Elizaren sakramentutasunak eskabide gogorrak ditu Eliza den elkartearentzat, batez ee hau: salbamenaren benetako zantzu izan nahi baldin badu, zantzu hori ilundu eta ulertezin egiten duen guztiaz libre behar luke Elizak. Baian horrelako zenbait itsatsi zaio Elizari gizaldietan zehar? Problema hau aztertzeak, ordea, Eliza Instituzio eta elkarte bezala aztertzea galdatzen du, eta beste egun baterako utz dezagun.

JOSEBA ARREGI

Nere Bordatxotik

Or konpon, zeure aldetik!

Zentzurik erabat galtzen ezpadegu, guk egundoko eztegu idatziko "frontoi batetan izan naiz", eta "erri batetan izan naiz", frontoi batean, edo erri batean izan naiz baizik.

"Zuk idazteko bide bat aukeratu duzu —diozu— ta nik ere bai".

"Halare nik guztiz errespetatzen zaitut".

Baita guk ere zu. Errespetu ta itzalik eztizugu egundo ukatuko, baiña zuk artu dezun bidea ta gurea eztira iñoiz uztartuko ta ezkonduko.

Zuk atzo arte eztala ezer onik egin usteko dezu euskal barrutian, eta gu zearo batekoz bestera gaude ortan.

Lendik jarri zirala oiñarri ta zimenduak, eta aiek izan ezpalira, ez zuk eta ez guk, gaur ez genduela euskeraz idatziko.

Gaur irakurle gutxi baditugu, lengo zar aiek izan ezean, bakar bat ez genduela izango; emengo pesta bukatua zala onezkero.

—oOo—

Erdel idazle sonatu batek au zion:

"Ogei zentzukide edo "sinonimo" baditu itz batek, errian ezagunen dana erabiltzen det beste guztiak baztertuik".

Ori da izan ere zentzuz eta buruz jokatzea, ta ez gu egiten ari gerana.

Ogei itz oietatik itzik ez-ezagunena, arrotzena erabiliko degu, Zuberoa'ko eztakit zein tokitan bizirik dagola-ta.

Argatik goaz goazen bezela amildegira.

Eztegu gure erririk ezagutzen, edo eztegu ezagutu nai; ez gera sikologoak, edo eztegu izaterik nai.

Gosez dagonari, iñola irentsi ezin duen jana eman nai diogu.

Zuk aitatzen dituzun autore ta liburu batzuri ere ba-diegu itzal eta errespetu, baiña ez gatoz bat iñolako moduz aiekin.

Zuk "ados" itza erabiliko zenduke; guri etzaigu ori ere gogozko, ta ezta urre emanik ere.

Zuk diozun bezela: "Zer egingo degu ba"...

Bakoitzak geure aldetik jokatuko degunarren, gizatasunez erantzun zeniguzun, eta gizatasunez dijoaz gure asken lerroak ere.

Eskerrikasko guztiagatik, eta ba-dakizu adiskide leial bat nun dezun Au da, noski, egitazko "demokrazia".

BASARRI

(c) Ministerio de Cultura 2005

SANTIMAMIÑEN

HIZTEGIA

Margazki: pintura — Ihizi: animal
Marrazki: grabado — Orkatz: corzo
Ehiza: caza

«San Ames
bart ein dot amets.
Ona bada, bion aldez.
Txarra bada, beiu artez».

Horrela erregutzen diote inguruko jendeek bere gau loa zaindu dezan. Zuloa ezagutzen ez zelarik ere debozio handiko leku zen gure Santimamiñe.

Urtean 80.000 lagun joaten omen dira harzulo hau ikustera. Bada jenderik!

AURKIKETA ETA LANAK

1916an mutil talde batek aurkitu zuen jolasean zebilela. Horrelako gauzak gehienetan bilaka ez dabiltzatenek aurkitu ohi dituzte.

1917an Abate H. Breuil-ek beste marrazki batzuk aurkitu zituen, lehenengoaz beste. Garai haietan eta gero arteaz jakintsu honek egindako lana oinarrizat dute gaurkoek.

Irudien lehen ikasketa sakona Quadra Salcedo eta Alcala Galianok egin zuten eta 1918 argitara.

Jose M. Barandiaranek eta E. Egurenek harzuloaren atarian giza aztarnak bazirela azaldu zuten.

Lan hauek egitea jakingarri zela-ta Bizkaiko Diputaziokoek laguntza eskaini zuten berartako lanak egiteko.

T. Aranzadi, E. Eguren eta J. M. Barandiaran-ek bederatzi ekinaldi egin zituzten 1918 eta 1926 urte tartean.

Orduan utzia eror zorian zegoela-ta 1960 eta 1962 urteetan berriro ere lotu zitzaion lanari J. M. Barandiaran.

NON DEN

Ereñusarre izeneko mendi malkarrean du bere ahoa. Kortezubin. S. Migel eliza bat ere bada mendi honen gainean. Inguruan Santimamiñeri eskeinia, III gizaldiko ume martiria. Erromesek ekarritako debozioa omen.

Horrenbeste eliza inguruan, gero margazkiak dituen harzuloa ondoan, aspaldidanik datorkio Santimamiñeri erlijiozko kutsu hori.

Itsas gainetik 150 metro gora dago, hau ere oso behean. Sarrera ttiki bat zuen hasieran: 2'8 zabal eta 2'7 gora. Gaurregun azterketa lanak egin ondoren, harzuloa erabat handitu da. Lerro beltzez adierazia duzu han bertan lehengo lur mailen neurria.

Atsegingarri gerta dedin, orain, 800 metrotara arte argiz josia dugu, gorriz eta zuriz. Horrenbeste jendetatik zenbat ote datoz margazkiak ikusteko asmoz?

ARTE

Santimamiñez hitzegitea hango arteaz hitzegitea da, gure artean behintzat.

Bi sailetan banaturik dago. Lehenengoa sarreratik 50 metrotara, "Jauretxe" deritzaten gela. Hemen daude ia denak. Beste saila, sarreratik 150 metrotara dago; hau beranduago aurkitu zuten. 1953, 1954 eta 1962 urtean aurkitu ziren hango margazki berriak.

Azkenok garbi darakuskigute margazkia hauek ez zirela bizilekuaren apaingarri edo hauzokoaren aurrean zer-esana jartzeko eginak.

Santimamiñeko giza-aztarnak aztertu eta gero margazkiak gizonik barrenean bizi ez zeneko garaian egindakoak direla ageri omen da; bestela esanda, hura egin zuenak hortarako bakarrik erabili zuela harzulo hau, alegia.

Denetara 50 bat irudi dira. Margazkiak gehienak, eta zoztzi marrazki denetara. Ihizien irudiak dira ia denak: Bisonak 26, zaldiak 6, Orein bat, hartz bat, tab.

10.000ren urte bide dituzte, Madeleine azken aldera eginak dirudite-ta.

KONTXATEGI

Aurignak arteko maila guziak baditugu harzulo honetan, bainan Neolitos eta Neolitos-aurreko aldikoek badute bere bereztasuna: maila hauek lurrez baino areago, maskor edo kontxaz osatuak daude. Metro bat edo bi ditu maila honek; horrelako pila egiteko jan beharko zuten hamaika soinbera edo molusco.

Egin zen zuloan 25.000 azal agertu ziren, beste hainbeste soinberarenak noski. Hauetatik 19.000 mila ostrenak dira, 4000 txirlarenak, ia 1000 laperenak, tab.

Madeleine aldia igaro eta gero giroa bigundu egin zen, elurrak ipar aldera jo eta elurrarekin batera hotzetan bizi zen ihizi sail guzia. Ihiziak urritu egin ziren orduan eta gizonak beste elikabiderik hautatu behar izan zuen.

Itsas ertzean bizi zirenek soinbera jateari eman zioten. Santimamiñetik zazpiren bat Km. joan beharko zuten ostrak eta besteak biltzeko. Joan-etorrirk franko egin zuten noski.

HEGAZTIAK

Azil aldi eta ondorengoetan hegazti asko harrapatzen zuten: uso, arrano, bele, hontza, eper, zozo...

Ordurako, gaur Sara eta Etxalarren egiten den bezala, usoa sarez edo harrapatzen hasi zirelakoaren ustekoa da J. M. Apellaniz ere. Santimamiñeko maila batzutan 26 hegazti mota edo klase agertu dira. Hauetan garrantzirik handiena faisan edo oiloaren hezur batek du, etxekotze edo domestikazioren hasera baten adierazgarri izan bait daiteke.

IHIZI GAZTEAK EHIZATZEN AL ZITUZTEN?

Ehizetik bizi zen gizon hark ihiziak maite behar zituen; beraiek bait zituen janari. Ondo ezagutzen zituen, bere arte lanetan erakutsi zigunez.

Ehiza ez zuen itsu-itsuan eginen, gaurko zenbait sasi-ehiztari potozalek egiten duen bezala. Gure galdera, beraz, bidezko da.

Agertzen diren hezurretan igerri daiteke, gaztea ala zaharra zen. Jakitea ezinezkoa gehienetan arra ala emea zen. Hori ere oso jakingarri litzakeala.

Jesus Altunak egin duen azterketen ondorena:

—Orein eta basurdeak: hirutatik bi zaharrak ziren.

—Orkatz, elur-orein, sarrio, basaker eta bison: lautik hiru zaharrak.

—Ia zaldi danak zaharrak; 27 zalditatik bat bakarrik zen gaztea.

Beraz, ihizi zaharrak ehizatzen zituzten batipat.

Marzelino Aizpurua
Aranzadi Taldean



Ereñusarren malkarrean den Santimamiñe eliza eta harzuloa



Santimamiñe harzuloaren oroia edo planoa. Irudien tokiak ongi dituzu adieraziak.





«Jauretxe»-an aurkitzen diren hartza eta orein burua. Hartz mota hau Kantauri-Madeleinean hemen bakarrik aurkitu da; besteetan leize-hartza aurkitu ohi da.

(c) Ministerio de Cultura 2005